

*156/2016 DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, kargu publikodunen betebeharreri eta eskubideei buruzkoa (Huts-zuzenketa, EHAA 245. zk., 2016-12-27)*

1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazka arautzen dituenak, kargu publikodunek dituzten eginkizun publikoen gardentasuna, eraginkortasuna eta dedikazioa bermatzeko betebeharra garatu eta sakontzen du.

Hala, lege horrek kargu publikoaren kontzeptua zabaldu zuen, legean arautzen den kontrol- eta berme-sisteman Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoan eginkizun publikoak betetzen dituztenen unibertso ahalik eta handiena sartzeko.

Ekainaren 1/2014 Legeak berak garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen alderdiez gain, egokitzen da kargu publikodunei buruzko zenbait alderdi, ordura arte hainbat arauen bidez araututa zeudenak, testu bakar batean biltzea araudian: 14/1988 Legea, urriaren 28koa, goi-kargudunen Lansariei buruzkoa, eta 10/2012 Legea, maiatzaren 30ekoa, Jaurlearitza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duena –horren bidez, biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea arautzen duen araudi berria ezarri da–.

Era berean, beharrezkoa da kargu publikodunen betebeharrak nahiz eskubideen izapideekin lotuta baliabide elektronikoen erabilera bultzatzea. Hartara, garrantzi berezia emango zaio paperean emandako dokumentuak kentzeari, ahal den heinean. Horren ordez, Langileen Erregistro Zerbitzurako lan egin duen kargu publikodunak baimena eman beharko du beste administrazio publiko batzuetan dauden eta norbere betebeharrak eta eskubideak betetzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak eskuratzeko.

Azkenik, kontuan hartuta gardentasuna gizartearen eskakizuna dela eta zuzenean eragiten diela herritarrentzat lan egiten duten kargu publikodunei, publizitate aktiboa jorratzeko konpromisoari buruzko hainbat alderdi jorratu dira, hain zuzen, alderdi horiek berrerabiltzeko asmoz.

Ildo horretan, dekretu honen helburua da erreferentziatzeko esparru orokorra eskaintzea kargu publikodunekin lotuta, haien betebeharrak eta eskubide guztiekin bat etorritik.

I. kapituluak, dekretu honen aplikazio-esparrua eta xedea zehazten dira.

II. kapituluak, Kargu Publikoen Katalogoa eguneratzeko eta argitaratzeko modua zehazten da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Kargu Publikoen Katalogoko lanpostuen titularrek kargu publikodun gisa emandako zerbitzuaren hasierari eta amaierari buruzko informazioa argitaratzeko betebeharra jasotzen da.

III. kapituluak berrikuntza gisa ezartzen Langileen Erregistro Zerbitzurako diharduen kargu publikodunaren baimena, hain zuzen ere, beste administrazio batean jasota dagoen eta kargu publikodun gisa betebeharrak eta eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazioa jotzeko; zehazki, zerga-arloko administrazioari buruzkoa edota Gizarte Segurantzako hainbat erakunde kudeatzaileei buruzkoa. Era berean, gardentasunaren funtsezko alderdi gisa profil eta ibilbide profesionala aurkezteko betebeharra zehaztu da.

IV. kapituluak, interes publiko eta pribatuaren artean gatazka-egoerak saihesteko egituratu behar den kontrola jorratzen da; hain zuzen ere, kargu publikodunek funtzio publikoan jardutean egin dezaketen kontrola. Parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharra ezartzen du.

V. kapituluak, jardueren deklarazioa eta bateragarritasunen araubidea aztertzen dira. Horretarako, jarduera bateragarri guztien baldintzak eta mugak xehatzen dira. Bateragarritasun-baimenen eskaerak ebazteko prozedura erraztu da.

VI. kapituluak ondare-ondasunen eta eskubideen deklarazioa arautu, eta horien edukia zehazten du. Berrikuntza gisa arautu da errentaren eta ondarearen zerga-aitorpenen kopia soilak ez ematea, bai zerbitzua ematen hastean, bai urtero, kargu publikodun gisa zerbitzua eman bitartean, eta horien ordeztu, berariazko baimenak lortu ahal izango dira informazio horretarako sarbidea izateko zerga-arloan eskumena duten kasuan kasuko administrazioetan. Halaber, jardueren eta ondareztu ondasun eta eskubideen deklarazioak aurkezteko betebeharrak ez betetzeak dakartzan diziplinazko erantzukizunak zehazten dira.

VII. kapituluan, arautzen dira ondare-arloan kargu publikodunen esku geratu ezin diren ondare-arloko mugak eta betebeharrak hori betetzeko ezarri beharreko kontrola.

VIII. kapituluak zehatz-mehatz arautzen ditu kargu publikodunek bete beharreko betekizunak, baita eman beharreko zerbitzuak amaitu ondoren ere, eta, zehazki, xede horren ondorengo bi urteetan edozein jarduera pribatu egiteko baimena eskatzeko betebeharrak amaitu ostean.

IX. kapituluan, zuzendaritzako langileen ordainsarien muga zehazten da.

X. kapitulua kargu publikodun gisa zerbitzua amaitzearen ondorioz aldi baterako kalte-ordain eta prestazioen araubidez arduratzen da. Alderdi berri bat arautzen da: zerbitzuak emateari uztearen ondorioz eragindako kalte-ordainei eta aldi baterako prestazio ekonomikoari uko egiteko aukera.

XI. kapituluak organo eskudunak aztertzen ditu, biziarteko pentsioaren eskubidearen aitortpena eta eskubide hori aitortuta duten pertsonen zerranda argitaratzeko ebazpena emateko.

Azkenik, XII. kapituluan, zerbitzuen prestazioetan, komunikazioetan eta kargu publikodunekiko harremanetan baliabide elektronikoen erabilera garatzen da, dagozkien eskubideak eta betebeharrak errazago eta arinago izapidetu ditzaten. Kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideen publikitatea formatu irekian jorratzeko (berrerabiltzeko) konpromisoa zer arlotan dagoen zehazten da.

Xedapen gehigarrietan, besteak beste, Eusko Legebiltzarrak Arartekoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari atxikitako kargu publikodunen administrazio-kudeaketarako duen eskumena xedatzen da. Hautaketa-prozesua izapidetu bitartean Kargu Publikoen Katalogoko lanpostua betetzeko aldi baterako izendatzen den kargu publikodunari dekretu honetan jasotakoa aplikatuko zaiola ezartzen da, eta, era berean, dekretu honen esparruan sartzekoak diren Euskal Autonomia Erkidegoaren edo bere sektore publikoaren partaidetza duten erakundeetako zuzendaritzako langileak zehazteko irizpideak jasotzen dira. Goi-zuzendaritzako lan-kontratua arautu da zuzendaritzako langileei atxikitzeko modu gisa. Kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideen berri izateko eta izapidetzeko gaituko den webgunearen helbide elektronikoa xedatzen da. Onartu egin da goi-zuzendaritzako lan-kontratuen eredia. Dekretu honen eranskin gisa sartu da. Kargu publikodunen betebeharrak zer kasutan berri behar ez diren zehaztu da. Azkenik, Eusko Legebiltzarrari kargu publikodunen betebeharrak betetze-mailari buruz igorri beharreko txostenaren edukia zehaztu da.

Xedapen iragankorretan, kargu publikodun gisa zerbitzua ematen hasteko data zehaztu da. Egun horretatik aurrera, dekretu honen VIII. kapituluan adierazitakoa ezarriko da. Goi-zuzendaritzara atxikita dauden egungo lan-kontratuak egokitzeko eta igortzeko epeak zehaztu dira. Partaidetzako erakundeen zuzendaritzako langileen betebeharrak aurkezteko epeak adierazten dira. Azkenik, dekretu hau indarrean sartzean zerbitzuak ematen dituzten kargu publikodunen betebeharrak berriak betetzeko epea zehazten da.

Xedapen Indargabetzaileak Dekretu hau indarrean sartzean indargabetuko diren arauak zehazten ditu.

Azken batean, dekretu honen asmoa da kargu publikodunen inguruan erreferentziazko esparrua araudi bakar batean bateratzea, haien betebeharrak eta eskubide guztiei koherentzia emateko eta kargu publikodunen betebeharrak betetzeko kontrol-sistema ezartzeko.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko azaroaren 15ean eginiko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### OINARRI OROKORRAK

##### 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da dekretua aplikatzekoa zaien kargu publikodunen eskubideak eta betebeharrak betetzera zuzendutako irizpideak eta prozedurak zehaztea, arlo honetako legerian ezarritakoarekin bat etorriz.

##### 2. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenak.

1.– Kargu publikodunek beren betebeharrak eta eskubideak erantzukizunpeko adierazpenen bidez beteko dituzte; hala, emandako datuen zehaztasun faltak, faltsutasunak edo hutsegiteak dagokion erantzukizuna ekarriko du.

2.– Kargu publikodunek izango dute haien adierazpenetan sartzen dituzten datuak egiazkoak eta eguneratuak izateko erantzukizuna, haien betebeharrak eta eskubideak betetzeko.

##### 3. artikulua.– Dokumentuak kudeatzeko informazio elektronikoaren sistema.

Kargu publikodunei buruzko informazioa eta dokumentuak informazio-sistema elektronikoan gordeta daude. Horrela, bermatu egiten da datu horiek ez aldatzea eta bertan jasota geratzea, baita datuen sarbidean eta erabileran segurtasun handia izatea ere.

##### 4. artikulua.– Goi-zuzendaritzako lan-kontratuak.

1.– Dekretu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-zuzendaritzako lan-kontratuaren eredia onartzen da. Kontratu-eredu hori eranskinean jaso da, eta horren arabera egokituko dira goi-zuzendaritzako lan-kontratudun langileen kontratuak.

2.– Kontratu-eredu horren aldaketa funtzio publikoaren arloan eskumena duen administrazio-organoaren titularrak egingo du.

3.– Salbuespen gisa, eta kontratatu nahi den erakundearen edo pertsonaren beharrian eta ezaugarri zehatzak aintzat hartuta, berariazko klausulak sartu ahal izango dira, aurretiaz Langileen Erregistro Zerbitzuak aldeko txostena egiten badu.

4.– Goi-zuzendaritzako lan-kontratuak formalizatu eta 5 eguneko epean, kasuan kasuko erakundeak horren kopia igorriko du Langileen Erregistro Zerbitzura.

5. artikulua.– Datu pertsonalen babesak.

1.– Dekretu hau betez kargu publikodunak ematen dituen datu pertsonalak «KARGU PUBLIKOAK» izeneko fitxategian erregistratuta geratuko dira. Fitxategi hori Datuak Babesteko Euskal Agentzian inskribatuko da.

2.– Fitxategi hori funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoaren erantzukizuna izango da.

## II. KAPITULUA

### KARGU PUBLIKOEN KATALOGOA

6. artikulua.– Kargu Publikoen Katalogoaren edukia.

1.– Kargu Publikoen Katalogoa publikoa izango da, eta erabilgarri egongo da dekretu honetan araututako publikitate-sistemaren bidez. Era berean, uneoro eguneratuta egongo da. Hona hemen bertan jasoko den informazioa:

- a) Kargu publiko lanpostuaren izena.
- b) Zein motatakoa den kargu publiko lanpostua (gubernuko kidea, goi-karguduna, zuzendari-tzako langilea, beste kargu publikodun batzuk).
- c) Zer antolaketa-egiturari atxikita dagoen.
- d) Kargu publiko lanpostuaren titularraren identifikazioa.
- e) Zerbitzua ematen hasteko eguna.

2.– Era berean, uneoro eguneratuta egongo da zerbitzua amaitu duten kargu publikodunen zerrenda.

7. artikulua.– Kargu Publikoen Katalogoa eguneratzea.

1.– Kargu Publikoen Katalogoa etengabe eguneratuko da, eta Katalogo horretako kargu publiko-koen zerrendari eragiten dion edozein aldaketa gehituko zaio, gorabehera hauen ondorio bada:

- a) EAEko Administrazioako sailen egitura organikoari buruzko dekretu berriak onartzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikoari atxiki edo lotutako organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak edo erakunde instrumentalak sortu, aldatu edo azkentzea dakarten arauak onartzea.
- c) Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2.1 artikuluko d), e) eta f) letretako kargu publikoei eragiten dieten aldaketak.
- d) EAEko Administrazioako sail eta organismo autonomoetako behin-behineko langileen lanpostu-zerrenda berriak onartzea.

e) Kargu Publikoen Katalogoan aldaketaren bat eragin dezakeen beste edozein arau-xedapen.

2.– Langileen Erregistro Zerbitzuak izango du Kargu Publikoen Katalogoaren administrazio-kudeaketarako eskumena.

8. artikulua.– Kargu Publikoen Katalogoaren urteko argitalpena.

Urtero, eta lehen hiruhilekoan, Gobernu Kontseiluak, funtzio publikoaren arloan eskumena duen saileko titularrak hala proposatuta, dekretu bidez onetsiko du Kargu Publikoen Katalogo eguneratua, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

9. artikulua.– Kargu publikodun gisa zerbitzua ematen hasteko eta amaitzeko epeak argitaratzea.

1.– Katalogoan sartutako kargu publikodunen izendapen eta kargu-uzte administratiboak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

a) Oro har, kargu publikoduna izendatzeko eguna Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo eguna izango da. Bestela, argitalpenean adieraziko da izendapen horrek noiz izango duen eragina.

b) Oro har, kargu publikodunak kargua uzteko eguna Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den eguna izango da. Bestela, argitalpenean adieraziko da kargu-uzteak noiz izango duen eragina. Dena dela, kargua uzteko eguna bat etorriko da zerbitzuak ematen dituen azken egunarekin.

2.– Goi-zuzendaritzako lan-kontratuaren bidez atxikita dagoen kargu publikoari dagokionez, kasuan kasuko erakundeak 5 egun balioduneko epean sartuko du iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Bertan zehaztuko da kargu publikoaren titularra zein den, eta zerbitzua noiz hasi eta amaituko den.

10. artikulua.– Kargu publiko lanpostuekin loturiko jarduera publikoen katalogoa.

1.– Katalogoko kargu publiko bakoitzari esleitutako jarduera publiko bateragarrien zerrenda publikoa izango da, eta horretarako ezarritako publizitate-sistemaren bidez eskuratu ahal izango da.

2.– Sail eta Erakunde Autonomoen Zerbitzu Zuzendaritzei dagokie Langileen Erregistro Zerbitzura igortzea norbere sailari zein dagokien jarduketa-esparruko sektore publikoan sartutako erakundeei atxikitako kargu publiko lanpostuekin loturiko jarduera publiko horiei buruzko informazioa.

### III. KAPITULUA

#### KARGU PUBLIKODUNEK ZERBITZUAREN HASIERAN DITUZTEN BETEBEHARAK

11. artikulua.– Informazio publikora sartzeko baimena.

1.– Kargu publikodunak baimena eman ahal izango du Langileen Erregistro Zerbitzuak beste administrazio batean jasotako informazioa eskura dezan, betiere beharrezkoa bada kargu publikodun gisa dituen betebeharrak eta eskubideak betetzeko, zehazki, zerga-administraziokoa eta Gizarte Segurantzako hainbat erakunde kudeatzailerena.

2.– Baimen hori eman ondoren, baimena kargu publikodun gisa zerbitzua amaitu eta ondorengo bi urtera arte luzatuko da.

12. artikulua.– Kargu publikodunen profil profesionala eta informazio osagarria.

1.– Kargu publikodunek, zerbitzuak ematen hasten direnetik, 15 eguneko epean, beren profil eta ibilbide profesionala aurkeztu beharko dute, horretarako prestatutako prozeduraren bidez.

Profil profesionalean honako alderdi hauek jaso beharko dira:

a) Prestakuntza akademikoa.

b) Edozein administrazio publikotan karrerako funtzionario, langile estatutupeko edo lan-kontratadun finkoak direla, eta, era beran, esparru publikoan daukaten lan-ibilbidea jaso beharko da, izendapen politikoko postuak barne direla.

c) Esparru pribatuko lanpostuetan daukaten esperientzia.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako informazio hori publikoa izango da, eta dekretu honetan araututako publikizitate-sistemaren bidez eskuratu ahal izango da.

3.– Profil eta ibilbide profesionalari buruzko informazioarekin batera, 15 eguneko epe berean, kargu publiko baterako izendatzen den pertsonak adierazi beharko du ea inoiz jaso duen kalte-ordainik kargu publikodun izateari uzteagatik eta ea nahitaezko eszedentzia egoeran dagoen edozein erakunde pribatutan lanpostua gordeta izanik.

## IV. KAPITULUA

### INTERESEN ARTEKO GATAZKA

13. artikulua.– Parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharra.

1.– Administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian parte ez hartzeko ezartzen diren kasuez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden kargu publikodunek ez dute parte hartuko jarduera, erabaki edo ekimenetan, baldin eta horietan haien interesak, ezkontide edo izatezko bikotekidearenak, laugarren mailara arteko odolkidetasun- edo ezkontza-ahaidetasuneko senideenak, edo beste pertsona batzuekin partekatzen dituzten interesak badaude edo interes horien alde egiten bada.

2.– Halaber, ez dute parte hartuko enpresa, sozietate edo erakundeetako gaien gaineko erabakietan eta ez dute haien berri izango, baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horien zuzendaritza- edo gobernu-organoetan izan badira, kargu publikodunak eurak edo ezkontide edo izatezko bikotekideak, bigarren mailara arteko odolkidetasun- edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak, edo horiekin interes partekatuak dituzten beste pertsona batzuk.

3.– Kargu publikodunek zerbitzuak ematen hasteko aurkeztu behar duten jardueren deklarazioa egitean, jarduera horren aurreko bi urteetan eginiko jarduera publiko nahiz pribatuei buruzko informazioa sartuko dute. Era berean, Langileen Erregistro Zerbitzuak interes publiko eta pribatuen artean sor daitezkeen gatazka-egoerak behar bezala kontrolatzeko eskatzen dien informazio sartuko dute –ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 9. eta 10. artikuluetan zehazten dira saihestu nahi diren egoera horiek–.

4.– Era berean, kargu publikodunak zerbitzuak eman bitartean, norberaren, familiaren edo hirugarren pertsonen egoeran izandako edozein aldaketaren berri emango du, betiere egoera horiek interes publiko eta pribatuen artean gatazka-egoera eragin ahal badute.

5.– Langileen Erregistro Zerbitzuak, kargu publikodunaren espediente pertsonala nahiz kargu publiko lanpostua gauzatzeko bete beharreko eginkizunak ikusita, parte ez hartzeko betebeharra betetzeko beharrezkoa den edozein dokumentu eskatu ahal izango du.

6.– Kargu publikodunak parte ez hartzeko betebeharra hausten badu, horrek dagokion erantzukizuna ekarriko du, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeko 28. eta 29. artikuluen baldintzei jarraikiz.

14.– Artikulua.– Ez duela parte hartuko jakinarazteko prozedura.

1.– Prozedura elektronikoa gaituko da kargu publikodunak 5 egun baliouduneko epean ez duela parte hartuko jakinarazteko betebeharra bete dezan, Langileen Erregistro Zerbitzuan jasota gera dadin.

2.– Langileen Erregistro Zerbitzuari dagokio informazio publiko horren administrazio-kudeaketa egitea.

3.– Parte ez hartzeko arrazoia kide anitzeko organoak bilera bat egin bitartean sortzen bada, kargu publikodunak ahoz adierazi ahal izango du ez duela parte hartuko. Jakinarazpen hori kide anitzeko organoko idazkariak jasoko du bilkurako aktan. Kargu publikodunak artikulua honetan eza-rritako izapideen bidez jakinarazi beharko du ez duela parte hartuko. Horretarako, bilkura-aktaren kopia emango du.

15. artikulua.– Inhibitzeko eskaera egiteko prozedura.

1.– Saitetako titularrek edo izendatu zituztenek beren mende dauden kargu publikodunei eskatu ahal izango diete inhibitzeko.

2.– Eskaera Gobernu kideren bati buruzkoa denean, lehendakariak emango du inhibitzeko agindua, aldez aurretik Gobernu Kontseiluari jakinarazita.

3.– Eskakizun horiek idatziz egin beharko dira, eta 5 egun baliouduneko epean jakinaraziko dira Langileen Erregistro Zerbitzuan, jasota gera daitezen.

16. artikulua.– Kargu publikoduna errekusatzeko prozedura.

1.– Espediente edo prozeduraren baten gainean interesa duten pertsonak espediente edo prozedura hori izapidetu, bideratu edo ebazteko eskumena duen kargu publikodunaren errekusatzea bultzatu ahal izango dute, administrazio-prozedura erkidearekin bat etorritik.

2.– Uko egiteko agindua hartu ondoren, Langileen Erregistro Zerbitzuari jakinaraziko zaio horren berri izan dezan.

## V. KAPITULUA

### JARDUEREN DEKLARAZIOA ETA BATERAGARRITASUNEN ARAUBIDEA

#### I. ATALA

#### JARDUEREN DEKLARAZIOA

17. artikulua.– Jardueren deklarazioa.

Kargu publikodunek jardueren deklarazio hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Jardueren deklarazioa zerbitzua ematen hastean:

Hilabeteko epean zerbitzuak ematen hasten direnetik aurrera, kargu publikodunek jarduera hauek deklaratu beharko dituzte:

1.– Kargu publikodun gisa zerbitzua eman aurreko bi urteetan eginiko jarduera publikoak eta pribatuak, edo, hala badagokio, jarduerarik egin ez dela.

Kargu publikodunak, hasierako deklarazioan, aurreko bi urteetan egindako zuzendaritza- edo gobernu-jarduerak sartuko ditu, enpresak edo elkarteak adieraziz. Era berean, erantzukizunpeko adierazpena ere egingo du adierazteko ez dagoela interes-gatazkarik familiakoek edo hirugarren batzuek egindako edozein jarduerari dagokionez (ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 10. artikuluan jasotakoak).

2.– Kargu publikodunek, beraiek edo ordezen edo ahalordetze bidez, kargu publikoarekin batera aldi berean bete nahi dituzten jarduera publikoak eta pribatuak.

b) Zerbitzua egiten den bitartean jardueren deklarazioa egitea:

Hilabeteko epean, deklaraturako jardueren egoerak edo edukia aldatzen denetik aurrera, kargu publikodunek berriz ere eskatuko dute bateragarritasun-baimena. Era berean, bateragarritasun-baimena lortu duen edozein jarduera amaitu dela jakinarazi beharko dute.

18. artikulua.– Irakasteko jardueren deklarazioa.

1.– Zerbitzua ematen hasi aurretik irakasteko jarduera gauzatzeko konpromisoa dutenek dago-kion erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute Langileen Erregistro Zerbitzuan, izendatu baino lehen, zeinetan adierazten diren urteko ikastorduak eta irakasteko ordutegia nahiz lekua.

2.– Langileen Erregistro Zerbitzuak txosten-proposamena aurkeztuko dio funtzio publikoaren arloan eskumena duen titularrari, eta hark, izendapena egin baino lehen, Gobernu Kontseilura igorriko du.

3.– Gobernu Kontseiluak kargu publikoduna izendatzeko hartzen duen erabakian, berariaz aipatuko du irakaskuntza-jarduerarako baimena.

19. artikulua.– Jardueren Erregistroa.

1.– Kapitulu honetan araututako deklarazioak, dokumentazio osagarriarekin batera, dokumentuak kudeatzeko sistema elektronikoaren Jarduera Erregistroan inskribatuko dira kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideen euskarri gisa.

2.– Jardueren Erregistroa publikoa da.

3.– Kargu publikodunei buruzko bateragarritasun-baimenek dekretu honetan araututako publikizitate-sistemaren bidez izango dute sarbidea.

## II. ATALA

### JARDUERA BATERAGARRIAK

20. artikulua.– Jarduera publikoen bateragarritasuna.

1.– Ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 15. artikuluan araututako jarduera publikoetarako ez da beharrezkoa izango bateragarritasunaren banako ebazpena, betiere dekretu honen 10. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik argitaratzen badira.



2.– Era berean, ez da banako ebazpenik beharko kargu publiko lanpostua gauzatzeko berez beharrezkoak diren hedapen-, jakinarazpen- eta komunikazio-jardueretan.

3.– Kargu publikodunak bateragarritasun-baimena eskatu beharko du edozein jarduera publiko gauzatzeko, dekretu honetan ezarritako prozeduraren arabera.

21. artikulua.– Jarduera pribatuen bateragarritasuna.

1.– Kargu publikoa betetzeak jarduera pribatu hauek ditu bateragarri:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsa, ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 22 eta 23. artikuluetan jarritako mugak eta guzti.

Inola ere ez gaude norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsaren kasu baten aurrean, hain zuzen, ordainsariak dituzten karguak (adibidez, gerenteak edo kontseilari delegatuak) betetzen direnean, edo gizarte-segurantzaren erregimenean sartuta egoteak dakarren beste edozein kargu gauzatzean.

Kargu publikodunak bere ondarea merkataritza-sozietate baten bidez antolatuta badauka, sozietate horren gobernu-organoei buruzko notario-eskritura aurkeztu beharko du. Beste kasu batzuetan, kargu publikodunak ondare hori kudeatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Langileen Erregistro Zerbitzuak, emandako dokumentazioa ikusita, eta txostena izapidetu baino lehen, langile eskatzaileei eskatu ahal izango dizkio egokitzat jotzen dituen argibideak. Ebazteko epea bertan behera geratuko da.

b) Noizbehinka parte hartzea kongresu, jardunaldi, mintegi, ikastaro eta hitzaldietan, baita komunikabideetako mahai-inguru nahiz saioetan ere, baldin eta parte-hartze hori ez bada lan-harreman baten edo zerbitzuak emateko kontratu baten ondorio.

Jarduera noizbehinkakoa izango da, baldin eta urte natural bakoitzeko, gehienez ere, 60 irakas-tordu ematen direnean edo komunikabideetako parte-hartze orduak 60 direnean.

Lan-harremana edo ematen diren zerbitzuen artean loturarik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da, baita zer jarduera emango den eta zenbat ordu emango diren ere.

c) Sortutako nahiz produzitutako lan literario, artistiko, zientifiko edo teknikoak merkaturatzea eta argitaratzea, baldin eta lan-harreman bat edo zerbitzuak emateko kontratu bat ez bada horien sorburu.

Laneko edo zerbitzuak emateko harremanik ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

d) Irabazi asmorik gabeko fundazioetan, elkarteetan edo erakundeetan parte hartzea, edo gizartearen edo kulturaren onerako jardueretan edo gizarte-balioak sustatzen dituzten jardueren zuzendaritza- eta kudeaketa-organoetan parte hartzea, baina ordainsaririk gabe.

Aurreko paragrafoan deskribatutako erakundeetan bazkide soil gisa parte hartzeko ez da beharrezkoa izango bateragarritasun-baimena eskatzea.

2.– Artikulu honetan jasotako jardueretan aritzeak ezin izango du eragotzi edo kaltetu kargu publikodunaren eginbeharrak eta obligazioak zuzen eta zorrotz betetzea, ez du arriskuan jarriko karguan inpartzialtasunez edo independentziaz jardutea eta ez du interes publikoan kalterik eragingo.

22. artikulua.– Kargu hautetsi izendatzeko bateragarritasuna.

1.– Ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lege honen aplikazio-esparruan sartutako kargu publikoak bateragarriak izango dira hautetsi kargu gisa izendatzearekin.

2.– Ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, horren bidez egiaztatzeko kargu publikodunak ez duela dedikazio-portzentajerik, eta, hala badagokio, dietak edo kalte-ordainak besterik ez dituela jasotzen. Halaber, kargu hautetsia izateagatik zer erakundetara joan behar duen ere zehaztu beharko du, xede soziala eta guzti.

23. artikulua.– Bateragarritasunak unibertsitate-irakaskuntzan jardutearekin eta enplegatu publikoen prestakuntzarekin.

1.– Unibertsitate-irakaskuntzan eta enplegatu publikoen prestakuntzan jarduteko bateragarritasunari dagokionez, kargu publikodunek bateragarri izango dituzte beren eginkizunak unibertsitate-irakaskuntzan eskola ordainduak ematearekin eta enplegatu-publikoen prestakuntzarako jardueretan parte hartzearekin, baldin eta jarduera hori ez bada haien arduraldiaren kalterako izaten eta inoiz ere ez bada hirurogei eskola-orduko kopurua urtean gainditzen.

2.– Erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, urteko irakaskuntza-orduak, eta ordutegia eta lekua adierazita. Online modalitateko ikastaro eta masterrei dagokienez, dedikazio-orduak edo ECTS kredituak jasoko ditu ziurtagirian.

### III. ATALA

#### BATERAGARRITASUNEN PROZEDURA ETA ORGANO ESKUDUNAK

24. artikulua.– Bateragarritasuna bideratzeko prozedura.

1.– Prozedura elektronikoa gaituko da bateragarritasuna bideratzeko eskaerak izapidetzeko. Langileen Erregistro Zerbitzuari dagokio kudeaketa administratiboa.

2.– Kargu publikodunak bateragarritasuna bideratzeko beste baimen-eskaera bat aurkeztu beharko du, baldin eta hasiera batean eskaeran aitortutako egoeraren bat (jardueraren xedea jakinarazteko jasotakoa) aldatzen bada.

3.– Eskaeraren legezko betekizunak aztertu ostean, funtzio publikoaren arloan eskumena duen saileko titularrak, bateragarritasunari buruzko txostena aurkeztuko du. Txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da, kontrakoa denean; eta nahitaezkoa, berriz, aldekoa denean.

Txostena egiteko izapide hori ez da beharrezkoa izango organoak berak duenean eskaera jakinarazteko eta ebazteko eskumena.

Aldeko txostena igorri ostean, ebazpena kontrakoa izan daiteke ebazteko eskumena duen organoak uste badu eskatutako jarduerak eragotzi edo kaltetu egiten duela kargu publikodunen betebeharrak eta obligazioak zorrotz betetzea, edo berau gauzatzean inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jartzen dela, edo interes publikoa kaltetzen dela.

4.– Langileen Erregistro Zerbitzuak izango du ebazpen hori jakinarazteko eskumena.

25. artikulua.– Organo eskudunak.

1.– Funtzio publikoaren arloaren ardura duen saileko titularrak du Bateragarritasun Baimenaren txostena igortzeko eskumena.

2.– Bateragarritasuna baimentzeko eskaerak ebazteko organo eskudunak ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoak izango dira.

## VI. KAPITULUA

### ONDARE-ONDASUNEN ETA -ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA

26. artikulua.– Ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazioa.

Kargu publikodunak, zerbitzuaren harremana hasi edo amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, aitortu beharko ditu bere ondare-arloko ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak. Honako hauek jasoko ditu:

a) Hiri- eta landa-ondasun higiezinak.

b) Ondasun higigarriak.

c) Beste ondare higikor batzuk.

d) Sozietate-partaidetzak.

e) Zorrak eta maileguak.

f) Sozietateen izena eta xedea, edozein dela ere sozietatearen mota, haietan interesak badituzte honako hauek: kargu publikoduna nahiz ezkontidea, zeinahi ere den ezkontzaren ondasun-erantzutza, edo izatezko bikotekidea, eta menpeko seme-alabak edo tutoretzapeko pertsonak.

g) Partaidetzako sozietateen izena eta xedea, baldin eta aurreko f) idatz-zatiaren arabera adierazpena egin beharra daukaten sozietateen partaidetzakoak badira.

27. artikulua.– Deklaraziotik baztertutako ondasunak.

Ondare-ondasun eta -eskubideen deklaraziotik kanpo geratuko dira etxeko hornidurak, Ondarearen gaineko Zergaren berriazko araudian araututako baldintzei jarraikiz.

28. artikulua.– Ondare-ondasun eta -eskubideen erregistroa.

Kapitulu honetan araututako deklarazioak, dokumentazio osagarriarekin batera, dokumentuak kudeatzeko informazio-sistema elektronikoaren ondare-ondasunen eta -eskubideen erregistroan inskribatuko dira –hain zuzen, kargu publikodunen obligazio eta eskubideen euskarri baita–.

29. artikulua.– Ondare-ondasun eta -eskubideen erregistroaren edukirako sarbidea.

1.– Ondare-ondasun eta -eskubideen erregistroa isilpekoa izango da.

2.– Legez ezarritako murriztapenak aintzat hartuta, ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazioari buruzko informaziorako sarbidea horretarako prestatuko den prozedura elektronikoaren arabera ezarriko da. Jatorriagatik prozedura elektronikoaren eskakizunetara egokitu ezin diren eskaerak salbuetsi egingo dira.

3.– Azken kasu horretan, idatziz aurkeztuko da eskaera. Aztertu beharreko ondare-ondasunen eta -eskubideen deklarazioaren edukia adieraziko da han.

4.– Langileen Erregistro Zerbitzuak ziurtatuko du eskatutako edukia, eta berariaz adieraziko du eskatutako informazioa isilpekoa dela, informazioa erabili eta gordetze aldera.

30. artikulua.– Errentaren eta ondarearen gaineko zergari buruzko zerga-informazioa.

1.– Kargu publikodunek zerga-aitorpenen kopiak aurkeztuko dituzte, bai zerbitzuak ematen hastean, bai urtero, kargua utzi ondorengo bi urteetan barne.

Dokumentazio horren truke, informaziorako sarbidea emango da Administrazio honek erakunde eskudunekin sinatzen dituen hitzarmenen bidez. Horretarako, aurretiaz kargu publikodunaren baimena jasoko du.

2.– Langileen Erregistro Zerbitzuak zerga-arloko dokumentazioa eskatuko du, kargu publikodunaren baimena lortu arren, ezinezkoa denean informazio horretarako sarbidea izatea.

31. artikulua.– Kargu publikodunen ondare-egoerari buruzko txostena zerbitzuak amaitzean.

1.– Langileen Erregistro Zerbitzuak, zerbitzuak amaitu direnean aurkeztutako ondare-arloko ondasun eta eskubideen deklarazioa aztertzean justifikatu gabeko aberastasun-seinaleak ikusten badira, 3 hilabeteko epean, kargu publikodunaren ondare-egoerari buruzko ofiziozko txostena egingo du.

2.– Kargu publikodun horri txosten-proposamenaren berri emango zaio, 15 egun balioduneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko, eta, hala badagokio, eskatzen zaion informazio guztia aurkez dezan.

3.– Langileen Erregistro Zerbitzua lankidetzan aritu ahal izango da beste erakunde edo administrazio batzuekin, kargu publikodunaren ondare-egoera justifikatu ahal izateko.

4.– Langileen Erregistro Zerbitzuak amaierako txostena igorriko dio kargu publikodunari eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen saileko titularrari. Azken horrek Gobernu Kontseilura igorriko du txostena.

5.– Edukian ikusten bada administrazio- edo zigor-arloko erantzukizunen bat dagoela, organo eskudun guztiei jakinaraziko zaie, hala badagokie, dagozkien prozedurak abiaraz ditzaten.

32. artikulua.– Deklarazioa ez aurkezteagatik sortutako diziplina-erantzukizunak.

1.– Ez du arau-hausterik ekarriko dekretu honetan deskribatutako jardueren eta ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazio-ereduak ezarritako epeetan aurkeztu ez izanak, Langileen Erregistro Zerbitzuak horretarako eginiko eskakizunean ezarritako epean aurkezten direnean.

Eskakizunean adierazitako epea igaro ondoren, kargu publikodunak jardueren eta ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazioak aurkezteko betebeharra betetzen ez badu, arau-hauste larria egingo du.

2.– Kargu publikodunek arau-hauste arina egingo dute, aurkezten dituzten jardueren eta ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazioetan nahita egin ez diren hutsegiteak egiten badituzte eta eskakizunean zehazten den epean zuzentzen badituzte.

3.– Kargu publikodunak arau-hauste larria egingo du, aurkeztutako jardueren eta ondare-ondasun eta -eskubideen deklarazioetan hutsegiteak egin baditu eta eskakizunean zehazten den epean konpontzen ez baditu.

## VII. KAPITULUA

### KARGU PUBLIKODUNARI EZARRITAKO ONDARE-ARLOKO MUGAK

#### 33. artikulua.– Ondare-mugak sozietate-partaidetzetan.

1.– Langileen Erregistro Zerbitzuak, zerbitzua hastean aurkeztutako ondare-ondasun eta -esku-bideen deklarazioa aztertu ondoren, kargu publikodunari eskatu ahal izango dio kasuan kasu beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio egokia aurkezteko, ekainaren 1/2014 Legearen 22.1 artikuluan jasotako ondare-arloko mugak behar bezala kontrolatzeko.

2.– Dokumentaziorik aurkezten ez bada, edo muga horietan arau-hausteen seinaleak ikusten badira, 3 hilabeteko epean, kargu publikodun gisa zerbitzua ematen hasten denetik aurrera, edo oinordetzan hartutako partaidetzak nahiz bestelako doako tituluak eskuratzen denetik aurrera, arau-hauste hori ez egiteko beharrezkoak diren izapideak egiteko eskatuko zaio.

3.– Eskaera horretan, kargu publikodunari jakinaraziko zaio sozietate-partaidetzei buruzko ondare arloko betebeharrak ez betetzeak arau-hauste oso larria dakarrela.

4.– Langileen Erregistro Zerbitzuak honako hauek jasota utziko ditu espediente pertsonalean: kargu publikodunak eginiko alegazioen izapideak, alegazio horien harira egindako transmisioak eta diziplina-arloko eskakizunak, ondare-arloko mugak hautsi diren kasuetan.

5.– Kargu publikoduna mendean duen saileko titularrari aurreko izapideen berri emango zaio.

6.– Ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 22.2 artikuluan jasotako ondare-arloko mugei dagokienez, kargu publikodunak dokumentazioa aurkeztu beharko du enpresan duen partaidetzak enpresaren jarduera nabarmen baldintzatzen duen posiziorik ez dakarrela egiaztatzeko.

#### 34. artikulua.– Baloreak eta finantza-aktiboak kontrolatzeko eta kudeatzeko betebeharrak.

1.– Ogasunaren eskumena duen sailak, bere kargu publikodunen jarduera publikoen zerrendan sartu beharko du merkatu antolatuan negoziatzea daitezkeen finantza-balioak edo aktiboak igortzen dituzten merkataritza-sozietateak arautu, ikuskatu edo kontrolatzeko eskumenak esleituta dituzten lanpostuen zerrenda.

2.– Lanpostu horiek zehaztu ondoren, lanpostuak betetzen dituzten kargu publikodunek ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 23. artikuluan ezarritako mugei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

## VIII. KAPITULUA

### KARGU PUBLIKODUNEK ZERBITZUA AMAITU ONDORENGO BI URTEETAN DITUZTEN BETEBEHARRAK

#### 35. artikulua.– Kargu publikodun gisa zerbitzua amaitu ondorengo debekuak.

1.– Kargu publikodunak, kargua utzi eta ondorengo bi urteetan, ezingo du lan- edo merkataritza-harremanik hasi beste enpresa, sozietate edo erakunde pribatu batzuekin, betiere horiek harreman zuzena izan badute kargu publikoaren berezko eginkizunak gauzatzeko.

Kargu publikodunak lan- edo merkataritza-arloko edozein jarduera pribaturen berri emango du jarduera hasi baino lehen.

2.– Halaber, aurreko puntuan aipatutako kargu publikodunek, eta denbora-bitarte berean, ezin izango dute egin, ez beren kasa, ezta zuzenean edo zeharka haien % 10eko partaidetza baino handiagoa duten sozietate edo enpresen bitartez ere, laguntza teknikoko kontraturik, zerbitzuko-rik edo antzekorik Administrazioarekin eta sektore publikoko organismo, entitate edo enpresekin, baldin eta horietan kargu publikodun gisa zerbitzurik eman badute, zuzenean edo enpresa kontratzaile edo azpikontratatzaileen bidez.

Langileen Erregistro Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialari jakinaraziko dio kargu publikodun gisa zerbitzuak amaitu dituela.

36. artikulua.– Kargu publikodun gisa zerbitzua amaitu ondorengo bi urteetan jarduera pribatuak bateragarri egiteko prozedura.

Bateragarritasun-eskaera horretarako prestatutako prozedura elektronikoaren bidez izapidetuko da, izapide hauekin bat etorritik:

a) Prozeduraren hasiera.

1.– Bateragarritasun-eskaera jarduera pribatua baino lehen eta lan-eskaintza hori jaso edo zerbitzuak eman ondorengo bi egun balioduneko epean aurkeztu beharko da.

2.– Eskaerarekin batera, lan-eskaintzaren kopia erantsi beharko da. Eskaintza horretan, honako hauek jaso beharko dira: eskaintza egin duen erakundea, kontratu mota (lan- edo merkataritza-kontratu), iraupena, kategoria profesionala, eginkizunak eta jaso beharreko ordainsari finkoak.

b) Izapideak.

1.– Langileen Erregistro Zerbitzuak azken zerbitzuak eman dituen sektore publikoko erakundeari eskatuko dio 10 egun balioduneko epean txostena igortzeko.

2.– Langileen Erregistro Zerbitzuak ikusten badu ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 18. artikuluan aurreikusitako debekuren bat hautsi dela, eskatzaileari eta eskaintza egiten duen erakunde pribatuari jakinaraziko die, 10 egun balioduneko epean egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

3.– Interesdunen alegazioak jaso ondoren, edo horretarako emandako epea igaro ondoren, Langileen Erregistroak ebazpen-proposamena igorriko dio funtzio publikoaren arloan dagokion saileko titularrari.

c) Ebazpena.

1.– Ebazpena ematea funtzio publikoaren eskumena duen saileko titularraren eskumena izango da.

2.– Ebazpena eskatzailearen eta enpresaren aldekoa bada, ebazpena emateko aintzat hartu ziren inguruabarretan izandako edozein aldaketaren berri emango dute; besteak beste, enpresen bat-egiteak edo xurgatzeak, enpresen subrogazioak, edo baimendutako bateragarritasunari kalte egin diezaiokkeen beste edozein.

Bateragarritasuna onartzeko ebazpena ezezkoa baldin bada, eskatzaileari eta erakunde eskaintzaileari ohartaraziko zaie ebazpena bete ezean, diziplina-arloan erantzukizuna izango dutela.

3.– Ebazpena emateko gehieneko epea hilabetekoa izango da, bateragarritasuna eskatu zen egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren, interesduna eskatutako jarduera gauzatu hasiko da.

4.– Langileen Erregistro Zerbitzuak bateragarritasunari buruzko ebazpenen berri emango dio dagokion sektore publikoko erakundeari.

37. artikulua.– Jarduera pribatuen bateragarritasunari buruzko prozedura laburtua, kargu publikodun gisa zerbitzua amaitu ondorengo bi urteetan.

1.– Kargu publikodunak kargu publiko gisa zerbitzuak ematen hasten denetik aitortu beharko du kargu publikoa betetzearen ondorioz nahitaezko eszedentzia egoeran dagoela, Langileen Estatutuaren 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Hala, lan-kategoria eta eginkizunak adieraziko dira.

2.– Langile horiek kargu publikoa betetzen duten bitartean, uko egin beharko diote lanpostua gordetzeko eskubidea ezarrita duten enpresa edo erakunde pribatuari eragiten dioten erabakien harremanak ezagutzeari eta horietan esku hartzeari, dekretu honetan ezarritako prozedurarekin bat etorritz.

3.– Kargu publikodun gisa zerbitzuak ematen amaitu ostean, Langileen Erregistro Zerbitzura igorri beharko dute nahitaezko eszedentzia eman zion enpresa edo erakunde pribatuan berriz sartzeko eskaeraren kopia. Horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharrak betetzeari dagokionez.

38. artikulua.– Konpentsazio ekonomikoa, lan-uztearen ondoren jarduera pribatuaren bateraezintasunagatik.

1.– Aurreko artikuluetan araututako bateragarritasuna ukatuta duten kargu publikodunek konpentsazio ekonomikoa jaso ahal izango dute.

2.– Horretarako, prozedura elektronikoa gaituko da, eta Langileen Erregistro Zerbitzuari dago-kio horren kudeaketa administratiboa.

3.– Konpentsazio ekonomiko hori aldi baterako prestazio ekonomikorako goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1998 Legean aurreikusita dagoen gehienezko kopuru gordinaz izango da.

4.– Konpentsazio ekonomikoaren iraupena, gutxienez, lan-kontratuan adierazitakoa izango da, eta, gehienez ere, bi urtekoa, zerbitzuak amaitzen direnetik aurrera, eskaera noiz egin den aintzat hartu gabe.

5.– Aitortzeko eta ordaintzeko ebazpena funtzio publikoaren arloan eskumena duen saileko titularrarena izango da, ogasunaren arloan eskumena duen sailak zerga-arloko kontu-hartzailletza egin aurretik. Konpentsazio ekonomikoa kargu publikodun gisa zerbitzuak eman dituen organoko azken aurrekontuaren kargura ordainduko da. Horrenbestez, konpentsazio ekonomiko hori aitortzeko prozeduran partetzat joko da.

6.– Ebazteko epea, gehienez ere, hilabetekoa izango da dagokion eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.

7.– Titulu honetan deskribatutako bateragarritasun-prozeduran administrazioaren isiltasuna ezezkotzat joko da.

8.– Lan-uztearen ondoren jarduera pribatuaren bateraezintasunagatik konpentsazio ekonomikoa jasotzea bateraezina izango da goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1998 Legean aurreikusitako aldi baterako prestazio ekonomikoa jasotzearekin.

9.– Dekretu honetan berariaz aurreikusitako guztian, goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1998 Legean araututako aldi baterako prestazio ekonomikoaren araudia beteko da, betiere izaera juridikoarekin bat etorritz, baita dekretuan ezarritako bateraezintasunen araubidearekin bat etorritz ere.

39. artikulua.– Publizitatea.

1.– Kapitulu honetan araututako deklarazioak, agiri osagarriekin batera, dokumentuak kudeatzeko sistema elektronikoaren Jarduera Erregistroan (kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideen euskarria) erregistratuko dira.

2.– Kargu publikodun gisa zerbitzua amaitu ondorengo bi urteetan jarduera pribatuetan aritzeko bateragarritasunari buruzko ebazpenak publikoak izango dira, eta dekretu honetan araututakoaren arabera eskuratu ahal izango dira.

## IX. KAPITULUA

### ZUZENDARITZAKO LANGILEEN ORDAINSARI-MUGAK

40. artikulua.– Zuzendaritzako langileentzako ordainsarien muga.

1.– Dagozkion administrazio-kontseiluek edo antzeko organoek ezarriko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzendaritzako langileen ordainsari finkoak eta aldizkakoak, eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen legeko behar den partidan banakatuta azalduko dira. Dena dela, ordainsari horiek ez dira ezein kasutan sailburuorde kargurako ezarritakoak baino handiagoak izango, antzintasunaren zioz egokitu dakiekena ezertan galarazi gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako zuzendariek pizgarritan jaso dezaketen gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzaren urteko memorian adierazitakoa izango da.

2.– Zuzendaritzako langileek kontzeptu guztiengatik, orotara hartuta eta datorren artikuluan aipatzen diren pizgarriak barnean direla, urtean jaso dezaketen gehieneko ordainsaria kasuan kasuko aurrekontuen legeek adierazitakoa izango da.

3.– Zuzendaritzako langileek antzintasunaren ziozko ordainsaria jasoko dute, baldin eta indarreko araudiaren arabera eskubide hori aitortuta badute. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetako gobernu-organoren berariaz adostu ahalko dute kargu publikodunek antzintasunaren ziozko ordainsariak jaso ditzatela, hiru urtekoak betetzeagatik. Ordainsari horiek, zehazki, aipatu erakundearen zuzendaritzako langile gisa soilik zerbitzuak eman diren hiru urteko aldi bakoitzeko sortuko dira.

Edonola ere, kasuan kasuko aurrekontuen legeetan antzintasuneko A1 azpitalderako esleitutako balioaren arabera ordainduko dira hiru urtekoak.

41. artikulua.– Zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako, sozietate publikoetako, partzuergoetako, fundazioetako eta partaidetzako erakundeetako zuzendarien pizgarri ekonomikoak aitortzeko prozedura.

1.– Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen, partzuergoen, fundazioen eta partaidetzako erakundearen administrazio kontseiluek edo antzeko organoek bermatu gabeko zenbatekodun pizgarriak ezarri ahal izango dituzte beren zuzendarientzat kudeaketa-helburuak betetzeagatik.

2.– Ezartzen diren pizgarri horiek ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen legeek ezartzen dituzten irizpideak bete beharko dituzte.



3.– Administrazio Kontseiluaren edo antzeko organoaren pizgarriak ezartzeko akordioan, pizgarriak banaka esleitzeko irizpideak definitu beharko dira. Irizpide horietan kontuan hartuko dira dagokion memorian jasotako helburu kualitatiboak eta urteko aurrekontuak bete diren eta urteko kudeaketa plana eraginkortasunez bete den. Era berean, honako hauek eskatuko dira:

a) Kudeaketa-planean ezartzea indarrean egon bitartean lortu beharreko helburuak, eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren, sozietate publikoaren, partzuergoaren, fundazioaren edo partaidetzako erakundeen jarduketa-lerro guztietan edo batzuetan ezarriko dira.

b) Lortutako emaitzak ebaluatzeko beharrezkoak diren adierazleak zehaztea.

c) Ikuskaritza- eta kontrol-tresnak aurreikustea, bai atxikita dauden sailei dagokienez, bai ogasunaren eskumena esleituta duen sailaren aldetik. Helburua da kudeaketaren martxari buruz uneoro informazioa izatea.

4.– Pizgarriak ezartzeko, kudeaketa-planarekin bat etorriz, zuzenbide pribatuko erakunde publikoari, sozietate publikoari, partzuergoari edo partaidetzako fundazioari edo erakundeari dagokion saileko titularraren aginduaren bidezko onespina beharko da. Agindu hori Langileen Erregistro Zerbitzura igorri beharko da inskribatzeko.

42. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetza duten erakundeen ordainsari-araubidea.

1.– Merkataritza Sozietateek duten borondatearen autonomia-printzipioa alde batera utzi gabe –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak % 50eko edo gutxiagoko partaidetza duen horien kapital sozialesan–, Jaurilaritzak sektore publikoaren erakunde instrumentaletarako ezarritakoaren antzeko ordainsari-araubidea bultzatuko du.

2.– Edonola ere, administrazioaren interesen ordezkariak dekretu honetan ezarritako preskripzioen aurka doazen erabakien kontra egingo du.

3.– Onetsi nahi diren akordioak, zuzendaritza-langileen goi-zuzendaritzako lan-kontratuak azkentzearen ondorioz ez datozenean bat dekretu honetan ordainsarien eta kalte-ordainen arloan aurreikusitakoarekin, Langileen Erregistro Zerbitzuari jakinaraziko diote, kargua uzteko agindua eta eguna jakinarazi ondoren.

4.– Langileen Erregistro Zerbitzuak ordezkaria izendatu duen saileko titularrari jakinaraziko dio, dagozkion ondorioetarako.

5.– Dekretu honetako xede diren kargu publikodunek partaidetzadun sozietateetako administrazio-kontseiluetara edo antzeko organoetara bertaratzeko dietak edo kalte-ordainak jasotzeko eskubideari dagokionez, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazka arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 15. artikuluan araututakoa bete beharko da.

## X. KAPITULUA

### KARGUA UZTEAGATIKO KALTE-ORDAINEN ETA ALDI BATERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ARAUBIDEA

43. artikulua.– Kalte-ordaina eta aldi baterako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubideari uko egitea.

1.– Langabeziaren kontingentziagatik kotizatzen Gizarte Segurantzako araudian xedatuta dagoenaren arabera, ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2.1.a) eta b) artikuluan adierazitako kargu publikodunek kargua uzteagatik jaso ditzaketen kalte-ordainei edo aldi baterako prestazio ekonomikoei uko egiteko eskubidea izango dute. Horretarako, izendapena egin eta 15 egun naturaleko epea izango dute.

2.– Uko egin ahal izateko, langile horiek egiazki langabeziaren kontingentziaren aplikazio-esparruan sartuta egongo dira.

3.– Uko egitea horretarako prestatutako prozedura elektronikoaren bidez egingo da.

44. artikulua.– Kargua uzteagatik kalte-ordaina eta aldi baterako prestazio ekonomia izapidetzeko prozedura.

1.– Bi prestazioen eskaera berariaz prestatutako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko da.

2.– Langileen Erregistro Zerbitzuak kasuan kasuko administrazioekin sinatutako interoperabilitate-hitzarmenen bidez, ikuskatu egingo du aldi baterako prestazioa jasotzen den epean bere horretan mantentzen direla eskubidea aitortzea eragin zuten baldintzak.

Hala badagokio, eskaera egiten duten langileei beharrezkotzat jotzen den dokumentuen bidez egiaztatzen eskatuko zaie. Halaber, halakorik aurkeztu gabe 15 egun igaro ondoren, espedientean atzera egingo dela ere ohartaraziko da, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Kalte-ordainerako eskubidearen titularra hilez gero, eskatzaileak eskubide hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

3.– Kalte-ordaina eta aldi baterako prestazio ekonomikoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da urteko ordainsari finko osoa, pizgarriak edo osagarri aldakorak (baldin baleude) aintzat hartu gabe; zehazki, eskubidea eraginkor egiten den unean Kargu Publikoen Katalogoaren lanpostuei dagokiena hartuko da kontuan. Ordainsari ezberdinak dituzten lanpostuak bete badira, ordainsari handiena hartuko da Katalogotik.

4.– Titulu honetan araututako kalte-ordaina eta prestazio ekonomikoa funtzio publikoaren arloan eskumena duen administrazio-organoko titularrak aitortuko du. Aurretiaz, zerga-arloko esku-hartzea egingo du ogasun horretan eskumena duen sailak. Hala, azken zerbitzuari dagokion erakundeko aurrekontuaren kontura egingo da ordainketa.

5.– Hilabeteko epea egongo da eskaerak ebazteko, eta isiltasuna ezezkotzat joko da.

6.– Eskaera ebatzi ondoren, kalte-ordaina eta aldi baterako prestazio ekonomikoa Langileen Erregistro Zerbitzuak kudeatuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoen barruan dagoen kargu publikodunari dagokionez.

7.– Kargua uztearen ondoriozko kalte-ordainari eta aldi baterako prestazio ekonomikoari buruzko informazioa publikoa izango da, eta dekretu honetan araututako moduan egongo da sarbidea.

45. artikulua.– Kargua uztearen ondoriozko kalte-ordainak.

1.– Goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 5. artikuluan adierazten diren kargu publikodunek kalte-ordain bat jasotzeko eskubidea izango dute, behin bakarrik. Kalte-ordain hori ordainsari finkoaren hilabete batekoa izango da, kargu-uztearen arrazoia eta zerbitzuak ematen zenbat denbora egon den aintzat hartu gabe.

2.– Goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 6. artikuluan adierazten diren kargu publikodunek eskubidea izango dute artikuluko horretan adierazitako kalte-ordaina jasotzeko.

3.– Kapitulu honen ondorioetarako, ez da kargu-uzterik egongo egoera hauetan:

a) Kargua uzten denetik edozein administraziotan eskubide hori jasota duen hurrengo kargua edo lanpostua hartzen den arte hiru hilabete baino gutxiagoko tartea dagoenean.

b) Betetako lanpostuaren izenaren aldaketak edota eduki funtzionalean egon daitezkeen aldaketak.

c) Lanpostu berean berrestea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen ondorioz edo beste edozein arrazoiren ondorioz eginikoa.

4.– Zuzendaritzako kargu publikoduna goi-zuzendaritzako lan-kontratuaren bidez egongo da lotuta. Aurretiaz jakinarazi beharko da, gutxienez 15 egun naturaleko epean, erakunde kontratugilearen erabakiz lotura hori amaitu dela.

46. artikulua.– Aldi baterako prestazio ekonomikoa kargua uzteagatik.

1.– Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2.1.a) eta b) artikuluan eta 2.2 artikuluan adierazitako kargu publikodunek goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legean ezarritako aldi baterako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango dute.

2.– Aldi baterako prestazio ekonomikoa bateraezina izango da, eta, beraz, besterik gabe galduko da eskuratu den edo eskura litekeen eskubidea, honako kasu hauetan:

a) Aurretiaz kargua uzteagatik kalte-ordaina edo antzeko prestazioa jasotzen denean, beste kargu publiko lanpostu batetik eratorrita, eta kargua uzten denetik izendapen berria egin arte gutxienez 6 hilabete igaro ez badira.

b) Langabezia-prestazioak edo funts publikoen kontura ordaindutako pentsioak jaso direnean.

c) Edozein kargu publiko ordaindu, hautetsi edo izendapeneko betetzen denean.

3.– Aldi baterako prestazio ekonomikoaren iraupena kalkulatzeko, eskubide hori sortzen duten Kargu Publikoen Katalogoko lanpostuetan eginiko hainbat izendapenen ondorioz emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

4.– Medikuntza- eta farmazia-arloko laguntza-estaldura kargudun langileek aurretiaz eskatuta emango da. Horretarako, osasun-sistemaren barruan estaldura hori ez dagoela egiaztatuta beharko da.

5.– Aldi baterako prestazio ekonomikoa partzialki ordaindu ahal izango da ordaindutako jarduera denbora partzialean egiten denean. Aldi baterako prestazio ekonomikoaren zenbatekotik, denbora partzialeko jardueragatik jasotzen den zenbatekoa deskontatuko da. Zenbateko osoak ez du inola ere gaindituko aldi baterako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa.

6.– Goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen zortzigarren artikularen b) letrako segida etengabearen kasuan, kargu publikodun berriak ez du aldi baterako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea sortuko. Kasu horretan, kargu berrirako izendatzean, aitortutako prestazio ekonomikoaren ordainketa etengo da, eta berriro jaso ahal izango du kargu berria uztean (aldi baterako prestazio ekonomikotik kobratu gabe geratu zaien zatia).

## XI. KAPITULUA

### BIZIARTEKO PENTSIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA

47. artikulua.– Biziarteko pentsioa aitortzeko eskumena duten organoak.

Kapitulu honetan araututako biziarteko pentsioa aitortzeko eskumena funtzio publikoaren arloan eskumena duen administrazio-organoko titularrak izango du. Aurretiaz ogasunaren arloko eskumena duen sailak zerga-arloko esku-hartzea egingo du.

48. artikulua.– Biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea aitortzeko prozedura.

1.– Prozedura bat ezarriko da biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea aitortzeko, eta horretarako ezartzen den prozedurak kasuan kasu Langileen Erregistro Zerbitzuak eskatzen duen dokumentazioa zehaztu beharko du, legitimazioa, egoera babestua eta biziarteko pentsioaren zenbatekoa egiaztatu ahal izateko.

Biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea aitortzeko eskaera berariaz prestatutako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da.

2.– Langileen Erregistro Zerbitzuak kasu bakoitzean zehaztuko du zer agiri aurkeztu behar diren eskaera ebatzi ahal izateko:

- a) Eskatzailea eskubidearen titularra den ala onuradunetako bat den aintzat hartuta.
- b) Egoera babestua aintzat hartuta (erretiro-adina, ezintasun fisikoa edo mentala).
- c) Gizarte Segurantzako pentsioaren edo funts publikoen kargura ordaindutako beste edozein pentsioren zenbatekoa egiaztatzea.

Era berean, ikuskatu egingo du biziarteko pentsioa jasotzen duen bitartean, pentsioa aitortzea eragin zuten baldintzak bere horretan mantentzen direla.

Hala badagokio, eskatzaileari eskatuko dio beharrezkotzat jotzen dituen egiaztagiria igortzeko. Hala, ohartarazi egingo da, halakorik aurkeztu ezean, 15 egun igaro badira, espedientean atzera egingo dela.

3.– Biziarteko pentsioa kalkulatzeko, kontuan hartuko da pentsioa jasotzeko eskubidearen titularrek Gizarte Segurantzako funtsen kargura edota funts publikoen kargura beste pentsiorik jasotzeko eskubidearen titular diren ala ez. Hala bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura soilik diferentzia jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta funts publikoen kargura ordaindutako pentsioa txikiagoa bada.

4.– Hilabeteko epea egongo da eskaerak ebatzeko, eta isiltasuna ezezkotzat joko da.

5.– Aitortutako biziarteko pentsioak erreferentziazko ordainsariak dituzten aldaketen arabera eguneratu beharko dira.

49. artikulua.– Aitortutako biziarteko pentsioak argitara ematea.

Langileen Erregistro Zerbitzuak biziarteko pentsiorako eskubidea aitortuta duten pertsonen zerrendari buruzko publizitatea emango du uneoro, dekretu honetan araututako moduan.

## XII. KAPITULUA

### BITARTEKO ELEKTRONIKOAK ETA GARDEBASUNA

50. artikulua.– Bitarteko elektronikoak erabiltzea.

1.– Langileen Erregistro Zerbitzuak dagozkion prozedura elektronikoak gaituko ditu, kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideak izapidetzeko xedez.

2.– Eskabide-ereduak, erantzukizunpeko adierazpenen ereduak eta formulario elektronikoaren bestelako ereduak, berariaz gaitutako egoitza elektronikoak egongo dira eskuragarri, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Era berean, eredu horietan Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusitako informazioa jasoko da.

3.– Egoitza elektronikoan, galderak egiteko postontzia egongo da, hain zuzen, kargu publikodunek zerbitzuak emateko betebeharrak eta eskubideen inguruan Langileen Erregistro Zerbitzuari helarazi nahi dizkieten galdera guztiak bideratzeko.

4.– Jarduera profesionalari dagokionez, kargu publikodunek derrigor eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte araudi honetan deskribatutako izapide guztiak. Horretarako, baliabide elektroniko hauek soilik erabiliko dituzte.

5.– Egoitza elektronikoaren bidez egingo dira kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideen espedienteen banako jarraipena. Sarbide mugatua izango dute.

51. artikulua.– Publizitate aktiboaren konpromisoa.

1.– Ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 26.3 artikuluan jasotako ondare-ondasunen eta -eskubi-deen deklarazioetarako sarbideen murriztapenekin, Langileen Erregistro Zerbitzuak aldi berean eta eguneratuta, modu argi eta ulergarri, egituratuta eta berrituz erabiltzeko moduko formatuarekin, gutxienez kargu publikoaren gaineko informazio garrantzitsu hau argitaratzeko konpromisoa hartzen du:

a) Kargu Publikoaren Katalogoa, honako informazio honekin: kargu publikoaren titularrei buruzko informazioa eta zerbitzua zein egunetan ematen hasi den.

b) Kargu publikodun gisa zerbitzua amaituta duten kargu publikoaren zerrenda.

c) Kargu publikodunen betebeharren betetze-maila, bai zerbitzua ematen hastean, bai amaitzean.

d) Kargu publikodun gisa jarduerak gauzatzeko dagokion bateragarritasunerako baimena lortu duten kargu publikodunen zerrenda, eta baimendutako jarduerak ere.

e) Kargu publikodun gisa zerbitzua amaitu ondorengo bi urteetan jarduera pribatuak gauzatzeko bateragarritasunerako dagokion baimena lortu duten kargu publikoaren zerrenda.

f) Interes-gatazka ekar dezaketen gaietan ez dutela parte hartuko edo inhibitu direla jakinarazi duten kargu publikodunen zerrenda, baita horien arrazoiak ere.

- g) Kargu publikodunen profila eta ibilbide profesionala.
- h) Kargu publikodunekiko interakziorako telefonoa eta helbide elektronikoa.
- i) Zerbitzua amaitzeagatik dagokien kalte-ordaina jaso duten kargu publikodunen zerrenda, baita kalte-ordain horren data eta zenbatekoa ere.
- j) Zerbitzua ematen amaitu ondorengo 2 urteetan jarduera pribatuetan aritzeko baimena ukatzen den kasuetan konpentsazio ekonomikoengatik kalte-ordainak jaso dituzten kargu publikodunen zerrenda.
- k) Biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea onartuta duten pertsonen zerrenda.
- l) Goi-zuzendaritzako lan-kontratuen bidez lotutako kargu publikodunen zerrenda.
- m) Urtero, aurreko ekitaldiko kargu publikodunen izendun ordainsariak.
- n) Urtero, kargu publikodunen ordainsari-taulak.

2.– Publizitate aktiboaren xede izango da beste edozein informazio, baldin eta funtzio publikoari, sektore publikoaren antolaketa eta funtzionamenduari edo gardentasun eta gobernu onari buruzko legerian jasota badago publizitate aktiboa eman behar zaiola.

52. artikulua.– Datuak berrerabiltzeko eta irekitzeko konpromisoa.

Langileen Erregistro Zerbitzuak bultzatuko du, ahal duen heinean, aurreko artikuluan jasotako informazioa eskuragarri egotea, formatu digitalean, estandarizatuan eta irekian, eta Eusko Jaur-laritzaren webgune instituzionaletik eskuragarria egotea, pribatutasuna, segurtasuna edo jabetza erabat errespetatuko direla bermatuta, egitura argi eta zehatzari jarraikiz, ondo ulertzeko eta berre-rabiltzeko, bai herritarrek, bai konputazioan diharduten agenteek.

53. artikulua.– Gardentasun-adierazleak.

Langileen Erregistro Zerbitzuak beste gardentasun-adierazle batzuk argitaratuko ditu, gardentasun-alorrean eskumena duen organoak hartzen dituen erabakien arabera beharrezkoa denean.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Arartekoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

Dekretu honetan Langileen Erregistro Zerbitzuari esleitutako eskumenak Eusko Legebiltzarreko administrazio-zerbitzuenak izango dira, Arartekoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kargu publikodunei dagokienez.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Aldi baterako izendatutako kargu publikodunak.

Dekretu honetan xedatutakoa berriazko araudiarekin bat etorritik hautaketa-prozesua izapidetu bitartean Kargu Publikoen Katalogoko lanpostua betetzeko aldi baterako izendatutako kargu publikodunei aplikatuko zaie.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Partaidetza duten erakundeetako zuzendaritzako langileak.

Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek izango dira kargu publikodunak, ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2.1.d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik: goi-zuzendaritzako lan-kontratuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren partaidetza duten erakundeekin edo

haren sektore publikoarekin lotura duten zuzendaritzako langileak, betiere kontratu hori gauzatzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko edo haren sektore publikoko ordezkari batek duenean erakundearen zuzendaritza-organoetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, honako hauek ere kargu publikodunak izango dira: goi-zuzendaritzako lan-kontratuaren bidezko lotura duten partaidetzadun erakundeko zuzendaritzako langileak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo haren sektore publikoaren partaidetza erakunde horretan handiena denean administrazio publikoen artean, bai erakundearen kapital sozialean partaidetza-ehuneko handiagoa duelako, bai erakundeko zuzendaritza-organoetako ordezkarien kopurua gainerako bazkideena baino handiagoa delako.

**LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzendaritza-kargudunek duten lotura.

Dekretu honen aplikazio-esparruan sartuta dauden zuzendaritzako kargu publikodunak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeei lotuta egongo dira goi-zuzendaritzako lan-kontratu baten bidez, erakundea sortzeko legeak edo hura garatzeko arauak izendapen hori administrazio-izendapen bidez ezartzen duten kasuetan izan ezik.

Dena dela, erakunde bakoitzak bere araudiaren arabera beteko ditu zuzendaritzako lanpostuak.

Sortu berri den sektore publikoko erakunde bateko zuzendaritzako langileek goi-mailako kargudun baten pareko izaera badute, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen urriaren 26ko 1/2014 Legearen ondorioetarako, egoera hori berriaz jaso beharko da zuzendaritzako organoak arautzen dituen arauan.

**BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Publizitate-sistema.

Langileen Erregistro Zerbitzuak Eusko Jaurlaritzaren webgune instituzionala erabiliko du dekretu honetan adierazitako kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideen berri emateko, publikoak direnean.

**SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Langileen Erregistro Zerbitzuarekin komunikatzeko organoak.

1.– Saitetako eta erakunde autonomoetako zerbitzu-zuzendaritzak edo pareko organoak arduratuko dira Funtzio Publikoko Zuzendaritzarekin solaskide-lanak egiteaz dagokion saileko kargu publikodun guztien kasuan, kontuan hartu gabe kargu horiek zuzenbide pribatuko entitate publikoetan, sozietateetan edo sail edo erakunde autonomo bati atxikitako edozein izaeratako organoetan betetzen dituzten.

2.– Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eta Lan Harremanen Kontseiluaren kasuan, Langileen Erregistro Zerbitzuari jakinarazi beharko diote zer komunikazio-organo izendatu duten Dekretu honetan jasotako betebeharrak eta eskubideak betetze aldera.

3.– Eusko Legebiltzarra izango da Langileen Erregistro Zerbitzuarekiko komunikazio-organoa Arartekoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kargu publikodun guztietarako, dekretu honetan jasotako betebeharrak eta eskubideak betetze aldera.

4.– Zerbitzu-zuzendaritzak edo komunikazio-organoak, hala badagokio, ahal denik eta azkarren jakinarazi beharko dio Langileen Erregistro Zerbitzuari, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta

haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 4. artikuluan sortutako Kargu Publikoen Katalogoan sorrerarik, ezabatzerik edo aldaketarik agertzen den.

**ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Zuzendaritza-langileen ordainsarien urteko informazioa.

Urtero, ekitaldi bakoitzaren lehen hiruhilekoan, sektore publikoko erakundeek honako hauek jakinarazi behar dizkiote Langileen Erregistro Zerbitzuari, ezartzen den moduan: haien kargu publikodunei ekitaldi bakoitzean ordaindutako izendun ordainsariak, zenbateko finkoak eta aldizkakoak jasota, pizgarrien ondoriozko zenbatekoa, eta, hala badagokio, antzinasunagatiko zenbatekoa. Era berean, erakundeko kargu publiko lanpostuak zer ordainsari-taulatan antolatuta dauden igorriko dute.

**ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Izendapen berrien ondorioz betebeharrak berritzea.

1.– Goi-zuzendaritzako izendapenetan edo lan-kontratuan aldaketak egiteko, beharrezkoa izango da kargu publikodunak dekretu honetan ezarritako betebeharrak berritzea.

2.– Deklarazioak ez dira berrituko konfiantzazko edo aldi baterako kargu publikoa uztearen arrazoia hura izendatu zuen saileko titularrak karguari utzi izana denean, baldin eta titular berriak izendatzen badu utzi duen kargu publiko berean, betiere kargua utzi eta izendapen berria egin arte hilabete baino gehiago igaro ez bada.

3.– Era berean, deklarazioak ez dira berrituko kargu publikodunak kendu eta izendatzen direnean izendapenen aldaketa hutsen ondorioz (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duten dekretuetan titular diren zentro organikoen izendapenetan).

**BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Eusko Legebiltzarrari kargu publikodunen betebeharren betetze-mailari buruzko informazioa ematea.

Langileen Erregistro Zerbitzuak sei hilean behin egingo du (ondoren Eusko Legebiltzarrari igortzeko) kargu publikodunek betebeharrak zer neurritan betetzen dituzten, dekretu honekin lotuta zer arau-hauste egin duten eta zer zehapen jarri diren jasotzen duen txostena (eta zehazpenen arduradunak ere adieraziko dira).

Baldin eta zehapen-prozeduraren bat ebatzi izan balitz, zehatzeko ebazpenaren kopia bidaliko zaio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari.

Txostenean, era berean, honako informazio gehigarri hauek jasoko dira: deklarazioak egiteko betebeharra duten kargu publikodunen kopurua, jasotako deklarazio-kopurua, kargua uztearen ondorioz eginiko komunikazio-kopurua, eta dekretu honetan aurreikusitako betekizunak bete ez dituzten kargu publikodunen kopurua.

Informazio hori dekretu honetan araututako publizitate-sistemaren bidez egongo da eskuragarri.

**HAMARGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Hizkuntza-araubidea.

Kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideei buruzko dekretu hau aplikatuz argitaratzen den informazioa euskaraz eta gaztelaniaz emango da.



Era berean, kargu publikodunek eskubidea daukate aukeratzen duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko Langileen Erregistro Zerbitzuarekiko komunikazioetan, eta, halaber, eskubidea dute hizkuntza horretan erantzun diezaien.

**LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Kargua utzi ondorengo betebeharrak.

Dekretu honen VIII. kapituluan jasotako xedapenak 2014ko azaroaren 1aren ostean zerbitzuak ematen hasi diren kargu publikodunei soilik aplikatuko zaizkie.

**BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Goi-zuzendaritzako lan-kontratuak egokitzea eta igortzea.

1.– 2 hilabeteko epean, dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera, goi-zuzendaritzako lan-kontratuak sinatuta dituzten erakundeek kontratu horien klausulak aldatuko dituzte dekretu honetan onetsitako eredura egokitzeko.

2.– Dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorriz, goi-zuzendaritzako lan-kontratuak klausule-tara egokitu ondoren, Langileen Erregistro Zerbitzura igorri beharko dira erregistratzeko.

**HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Partaidetza duten erakundeen zuzendaritzako langileen betebeharrak.

Kargu Publikoen Katalogoan sartutako lanpostuak betetzen dituzten partaidetzako erakundee-tako zuzendaritzako langileek hilabeteko epea izango dute, dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera, dekretu horretan jasotako betebeharrak betetzeko. Zehazki, Etika eta Jokabide Kodera atxikitzea, jarduerak aitortzea, eta ondare-ondasunen eta -eskubideen deklarazioa.

**LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Dekretu hau indarrean sartzean zerbitzuak ematen dituzten kargu publikodunen betebeharrak.

Dekretu hau indarrean sartu aurretik izendatzen dituzten kargu publikodunek lau hilabeteko epea izango dute dekretu honen 12. artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzeko.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**– Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka egiten duten, kontraesanean dauden edo bateragarriak ez diren maila bereko edo beheragoko arau guztiak, eta bereziki:

a) Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 17. artikuluko n) letra.

b) 129/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, Jaurlearitzako kideen, Administrazioko goi-kargudunen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen zuzendaritza-taldekieen jarduerak eta ondarezko eskubide-ondasunak adieraztea eta erregistratzea arautzeko dena.

c) 130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendarien estatutu pertsonala arautzen duena.

d) 131/1989 Dekretua, maiatzaren 23koa, gobernuko kideek, EAeko administrazioko goi-kargudunek, konfiantzako langileek edota administrazioko aldi baterako langileek beren kargua uzten dutenean jasoko duten kalte-ordainen edo aldi baterako prestazio ekonomikoaren araubidea arautzen duena, bigarren xedapen gehigarria izan ezik.

e) Agindua, 2013ko irailaren 6koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunak eta behin-behineko langileak Etika eta Jokabide Kodeari banaka atxikitze prozedurari buruzkoa.

f)–4/2014 zenbakiko jarraibidea, abenduaren 9koa, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako betebeharrei dagokienez.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Etika eta Jokabide Kodea.**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluari dagokio Etika eta Jokabide Kodea onartzeko erabakia hartzea.

Etika eta Jokabide Kodea atxikitako kargu publikodunen zerrenda publikoa izango da, eta dekretu honetan araututako publizitate-sistemaren bidez eskuratu ahal izango da.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean jartzea.**

Dekretu honen arabera onesten den araudia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 15ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

AZAROAREN 15EKO 156/2016 DEKRETUAREN ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO SEKTORE  
PUBLIKOKO GOI- ZUZENDARITZAKO LAN-KONTRATUAREN EREDU  
KORPORATIBOA GOI-ZUZENDARITZAKO LAN-KONTRATUA

[Lekua](e)n, [Urtea](e)ko [Hilabetea]aren [Eguna](e)(a)n

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

**ALDE BATETIK:** [Jarri erakundearen ordezkariaren izen-abizenak] jauna/andrea ([Jarri ordezkariaren NAN zenbakia] NAN zk.), [Jarri erakundearen izena eta izaera juridikoa] erakunde (egoitza soziala: [Jarri erakundearen egoitza soziala]) [Jarri ordezkariak zer postu daukan erakunde]; erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz jarduten du.

**ETA BESTETIK,** [Jarri zuzendaritza-kargudunaren izen-abizenak] jauna/andrea (NAN zk.: [Jarri zuzendaritza-kargudunaren NAN zenbakia]); helbidea: [Jarri zuzendaritza-kargudunaren posta- helbidea]; bere izenean eta interesean jarduten du.

Bi aldeek onartu eta aitortzen diote elkarri goi-zuzendaritzako langileen izaera bereziaren lan- kontratua egiteko legezko gaitasun nahikoa dutela, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuan eta enplegu publikoarekin lotuta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera. Horrenbestez:<sup>1</sup>

ADIERAZTEN DUTE:

Erakundearen xede soziala eta izaera:

[Erakunde kontratatzailearen izena] erakunde (izaera juridikoa: [izaera juridikoa]) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan dago; hau da xede soziala: [xede sozialaren deskribapena]; eta honako hauen mende dago: [erakundearen partaidetza duten administrazio publikoak].

Zuzendaritza-postua betetzeko beharra.

[Erakunde kontratatzailearen izena]k [zuzendaritza-kargudunak bete beharreko postua] postua bete behar du, eta honi dagokio postu hori betetzeko pertsona izendatzea: [Administrazio Kontseilua / Patronatua].

Izendatzeko akordioa.

[Administrazio Kontseilua / Patronatua]k 20XX(e)ko XXXXaren XX(e)(a)n eginiko bileran erabaki zuen [zuzendaritza-kargudunaren izena] izendatzea [zuzendaritza-kargudunak bete beharreko lanpostuaren izena] lanpostua betetzeko; izan ere, egokitzat jo da titulu akademikoaren, ezagutzaren, profilarren eta ibilbide profesionalaren aldetik. Hala, [Administrazio Kontseilua / Patronatua] ren lehendakariari eskumena eman zaio dagokion kontratua formalizatzeko, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duten arauekin bat etorritik, abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren arabera eta ekainaren 26ko 1/2014 Legearekin (Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituenarekin) bat etorritik.

<sup>1</sup> 14/1988 Legea, urriaren 28koa, goi-kargudunaren ordainsariei buruzkoa, 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, eta XX Dekretua, 2016ko XXaren XX(e)koa, kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideak ezartzen dituen.

Era berean, [Administrazio Kontseiluak / Patronatuak], 20XX(e)ko XXaren XX(e)(a)n egindako bilera, honako hau erabaki zuen: [zuzendaritza-kargudunaren izena] jaunak/andreak ordainsaria jasotzea, antzinasunaren zioz, hirurtekoak betetzean. Ordainsari horiek, zehazki, [erakunde kontratugilearen izena](e)(a)n zuzendaritzako langile gisa soilik emandako zerbitzuen hiru urteko aldi bakoitzeko sortuko dira.

Mugarik ez egotea.

[Zuzendaritza-kargudunaren izena] jaunak/andreak deklaratu du ez duela inolako mugarik lan- kontratu hau gauzatzeko gaitasunean. Horrenbestez, berariaz deklaratu du ez duela inolako konpromiso ez obligaziorik elkarre, erakunde, enpresa, organismo, pertsona fisiko edo juridiko batekin ere egoteko, eskusibotasunean aritzeko edo kontratuaren ondorengo lehia parte ez hartzeko, eta, beraz, zuzenean edo zeharka kontratu hau sinatzeko ezintasunik.

Era berean, [zuzendaritza-kargudunaren izena] jaunak/andreak deklaratu du ez duela bateraezintasunik edo mugarik jardura profesionala gauzatzeko bateraezintasunen arloan, eta, zehazki, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 12., 13., 14., 15., 16., 17. eta 18. artikuluetan aurreikusitakoan.

Baldin eta [zuzendaritza-kargudunaren izena] jaunak/andreak berariaz eta idatziz kontratu hau sinatzen duen erakundeko ordezkariari jakinarazi izan ez bazion bateraezintasun horren arrazoia, [Erakunde kontratatzailearen izena] erakundeak lan-kontratua berehala eta aurretiaz abisatu gabe deuseztatzeko eskubidea izango luke. Hartara, kontratutik eratorritako kalte-ordaina edo konpentsazioa jasotzeko eskubideak bertan behera geratuko dira, baldin eta bi aldeek onartzen badute lanpostua betetzeko bateraezintasun hori aipatu ez izanak nolabaiteko bizioa dakarrela erakundearen baimena eratzean kontratu hau formalizatzeko unean.

Barne-sustapena<sup>2</sup>.

[zuzendaritza-kargudunaren izena] jauna/andrea [Erakunde kontratatzailearen izena] erakundeko langilea da XXXX(e)ko XXaren XX(e)tik, eta [Kategoria profesionalaren izena] kategoria profesionala dauka, eta, lan-harremanari dagokionez, honako kontratu-mota dauka: [Kontratu-mota adierazi: mugagabea, aldi baterakoa...]. Lanpostu hau betetzen du: [ohiko lan-harremanaren mende betetako lanpostuaren izena].

[zuzendaritza-kargu lanpostuaren izena] izendatzearen ondorioz, ohiko lan-harremana bertan behera geratu da, eta kontratu honen bidez gauzatu den lan-harreman berezia azkendu ondoren, langileak jatorrizko lan-harremanari berrekiteko aukera izango du, aurreko paragrafoan adierazi bezala, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1958 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen den bezala.

Bi alderdien akordioa.

[Jarri zuzendaritza-kargu lanpostuaren izena] lanpostua gaur egun hutsik dago, eta bi aldeek nahia da kontratu hau sinatzea, zeinaren bidez [Jarri zuzendaritza-kargudunaren izen-abizenak], jauna/andrea (hemendik aurrera, «zuzendaritza-karguduna») [Jarri erakundearen izena] erakundearekin lotuko baita (hemendik aurrera «Erakunde kontratatzailea») adierazten den egunetik aurrera. Horretarako, goi-zuzendaritzako lan-harreman berezia ezarriko da, eta honako klausula hauek arautuko dute kontratua:

---

2 Kargu publikodunak aurretiaz erakunde kontratatzailearekin lan-harremana izango balu soilik.

## KLAUSULAK

Lehenengoa.– Printzipioen deklarazioa.

Kontratu honek arautzen duen lan-harreman berezia aldean dagoen elkarrekiko konfiantzan oinarritzen da. Hartara, norbere eskubide eta betebeharrak fede oneko eskakizunetara egokituko dituzte. Erakunde kontratatzaileak agintzen dizkion eginkizunak erabateko dedikazioz eta ezagutza profesionalean oinarrituta gauzatzeko konpromisoa hartzen du zuzendaritza-kargudunak.

Bigarrena.– Etika eta Jokabide Kodea.

Goi-zuzendaritzako lan-kontratu honen sinatzaileak deklaritzen du:

– [Jarri data](e) EHAAn<sup>3</sup> argitaratutako Etika eta Jokabide Kodea eskuratu duela.

– Behin kodea irakurrita, horren edukietara atxikitzen dela baldintza guztietan, bertan jasotako printzipio eta betebeharrak betetzeko konpromisoa hartuta.

– Kodearen hedapena eta aplikazioa errazteko konpromisoa onartzen duela, baita horri atxiki-tzeak dakartzan betebeharrak ere.

– Bere gain hartzen duela dimisioa aurkeztu eta kargua uzteko obligazioa, Etika eta Jokabide Kodean ezarritako jokabideren bat betetzen ez den kasuetan neurri hori aurreikusita baldin badago.

– Baimena ematen duela errentaren gaineko aitortpenen zerga-oinarriei –eta, hala badagokio, ondare-oinarriei– buruzko informazioa argitara emateko.

Hirugarrena.– Kontratuaren xedea.

Kontratu honen xedea da zuzendaritza-kargudunak, erakunde kontratatzailean, [Identifikatu zuzendaritza-kargu lanpostuaren izena] lanpostuari dagozkion berezko eginkizunak gauzatzeari; zehazki, zuzenean nahiz zeharka kargu horren mende daudenak. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen betebeharrak egokituko da. Kargu publikodunen jokabide- kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean eta ondoren garatutakoetan aurreikusitakoa beteko dute.

Zuzendaritza-kargudunak erakunde kontratatzailean emango ditu zerbitzuak. Horretarako, dagokion titulartasun juridikotik eratorritako botere guztiak baliatuko ditu erabateko autonomiaz eta erantzukizunez jokatu. Hori dela eta, kontratu honetan ezarritako ordainsari-sistemaren arabera ordainduko da.

Laugarrena.– Kontratuaren indarraldia eta iraupena.

Goi-zuzendaritzako lan-kontratu hau indarrean sartuko da [Urtea](e)ko [Hilabetea]aren [Eguna] (e)tik aurrera. [Urte-kopurua letra larriz] urteko iraupena izango du. Hala ere, alde biek hala adostuta, luzatzeko aukera egongo da, baldintza berdinetan.

Bosgarrena.– Proba-aldia.

Aurreko klausulakoa gorabehera, probarako epe jakin bat adostu dute: [Hilabete-kopurua letra larriz] hilabetekoa, hain zuzen.<sup>4</sup>

---

3 Kontrau hau sinatzean Etika eta Jokabide Kodearen alde bat emango zaio

4 Proba-aldia gehienez ere 9 hilabetekoa izango da, baldin eta kontratuaren iraupena mugagabea bada.

Seigarrena.– Zuzendaritza-kargudunaren eginkizunak.

Zuzendaritza-kargudunak [lanpostuaren izen ofiziala] lanpostua beteko du, eta goi-zuzendaritzako eta gerentziako eginkizunak baliatuko ditu lanpostua gauzatzeko. Horretarako, zuzendaritza-kargudunak posizio organikoa izango du, eta dagozkion eskumenak eskuordetuko zaizkio, erakunde kontratatzaileak emandako ahalmen eta eskumenekin bat etorriz.

Eginkizunak gauzatzean, zuzendaritza-kargudunak jarraibide jakin batzuk jasoko ditu, eta dago-kion [Administrazio Kontseilua / Patronatua]ri eta horren lehendakariari kontuak emango dizkio.

Era berean, eskuordetzen zaizkion exekuzio- eta zuzendaritza-arloko eskumen guztiak gauzatzeko ditu zuzendaritza-kargudunak. Horretarako, eginkizun horiek baliatu eta koordinatuko ditu eskuordetu zaizkion eskumenen arabera.

Zazpigarrena.– Esklusibotasunaren konpromisoa.

Zuzendaritza-kargudunak, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeko 12. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, dagozkion eginkizunak dedikazio osoz gauzatzeko ditu. Hala, jarduera horretan diharduen bitartean, ezingo du bestelako jarduerarik egin (adibidez, kargu publikorik bete), ez berez, ez beste edozein lanpostu, kargu, ordezkaritza, lanbide edota merkataritza-jarduera edo jarduera profesionala nahiz industrialia ordezkatzuz nahiz jabetzan hartuz.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez die eragiten Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak ezarritako salbuespenei ezta Jaurlaritzak, interes publiko bereziko arrazoiengatik, sektore publikoan bigarren postua betetzeko ematen dituen baimenei ere, eta, horrelako kasuetan, ezin da ordainsari bat baino gehiago jaso.

Ildo horretan, zuzendaritza-kargudunak adierazten du aurretiaz adierazitakoan edo horretatik eratorritako betebeharretan izandako edozein faltsutasunek edo arau-haustek kontratua deuseztatzea ekarriko duela.

Zortzigarrena.– Lanlekua.

Hasiera batean, zuzendaritza-kargudunak erakunde kontratatzailearentzat emango ditu zerbitzuak haren lantokian; hau da, [lanlekuaren helbide osoa] helbidean. Dena den, erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du zuzendaritza-kargudunaren lanlekua beste leku batera aldatzeko, betiere beharrezkotzat jotzen bada eginkizunak behar bezala gauzatzeko.

Era berean, zuzendaritza-karguduna behar adina alditan lekualdatuko da eman zaizkion eginkizunak gauzatzeko beharrezkoa denean.

Bederatzigarrena.– Laneko jardunaldia.

Laneko jardunaldia eta ordutegia modu askean zehaztuko dira kontratu honen xedetik eratorritako eginkizunak gauzatzeko. Ez dira legeria arruntean ezarritako lan-ordutegiaren mugen edo banaketaren mende egongo.

Zuzendaritza-kargudunak jardunaldi osoko dedikazioan gauzatu beharko ditu agindutako eginkizunak. Hala, ahalik eta ondoena egokituko da zerbitzuaren beharrianak lortzeko.

Laneko ohiko ordutegia gainditzen duen gehiegizko ordu-kopurua ez da aparteko orduaren kontzeptu gisa zenbatu daitekeen kontzeptutzat joko, ezta kontratu honen hamaikagarren klausulan (ordainsariei buruzkoan) ezarritako ordainsari osagarritik erator daitekeen antzeko beste edozein kontzeptutzat ere.

Hamargarrena.– Oporrak eta jaiegunak.

Laneko jardunaldiari eta ordutegiari buruz hitzartutako malgutasunaren barruan, zuzendaritza- kargudunak lan-egutegiko oporrak eta jaiegun ofizialak izango ditu. Edonola ere, erakunde kontratatzaileak, salbuespen egoeretan, jaiegun horiek laneguntzat edota bidai, joan-etorri nahiz bileretarako eguntzat jo ditzake.

Zuzendaritza-kargudunaren oporrak, oro har, erakunde kontratatzaileak ekitaldi bakoitzeko onetsitako lan-egutegian langileentzat zehaztutakoak izango dira. Opor horiek karguaren beharizanetara egokituko dira, eta kontuan hartuko da erakunde kontratatzailearen eta zuzendaritza- kargudunaren interesa.

Edozein kasutan, erakunde kontratatzaileak oporrak gozatzeko epe jakin batzuk baztertzeko edo adierazteko eskumena izango du, erakunde kontratatzaileak berak zehaztutako zerbitzuaren beharizanen arabera.

Hamaikagarrena.– Ordainsari finkoa.

Zuzendaritza-kargudunaren urteko ordainsaria [ordainsariaren zenbatekoa letra larriz] euro (XXXXXXX €) gordinekoa izango da, hamalau hilabetetan berdin banatuta: hileko hamabi ordainsari gehi aparteko bi ordainsari (bat ekainean, eta bestea, abenduan).

Ordainsari horiek hilabete bakoitzaren amaieran jasoko dira banku-transferentziaren bidez. Zuzendaritza-kargudunak adierazten duen banku-kontuan egingo da, eta legezko oinarritzko soldata gehi ordainsari osagarri finko eta aldizkakotzat joko dira, antzintasunaren salbuespenarekin, hala badagokio.

Zenbateko hori handitu egingo da ondorengo urteetan, horren inguruan Euskal Autonomia Erki-degoko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen dituen aurreikuspenen arabera.

[Zuzendaritza-kargudunaren izena] jaunak/andreak antzintasunaren ziozko ordainsaria jasoko du, eskubide hori duelako aitortuta indarreko legedian. Ordainsari hori, zehazki, lan egindako hiru-tekoetan sortuko da, eta kasuan kasuko aurrekontuen legeetan antzintasuneko A1 azpitaldeari esleitzen zaion zenbatekoan ordainduko da. 5.1.

[Zuzendaritza-kargudunaren izena] jaunak/andreak antzintasunaren ziozko ordainsaria jasoko du, hiru-tekoak betetzeagatik. Ordainsari hori, zehazki, [erakunde kontratugilearen izena](e)(a)n zuzendaritzako langile gisa soilik emandako zerbitzuen hiru urtekoaldi bakoitzeko sortuko da, eta kasuan kasuko aurrekontuen legeetan antzintasuneko A1 azpitaldeari esleitzen zaion zenbatekoan ordainduko da. 5.2.

5.1.– Soilik, baldin eta zuzendaritzako kargua duen pertsonak indarreko araudian badauka aitortuta antzintasunaren ziozko ordainsariak jasotzeko eskubidea.

5.2.– Soilik, baldin eta antzintasunaren ziozko ordainsaria jasotzea adostu badu erakundeko gobernu-organo gorenak.

Hamabigarrena.– Mantenurako eta joan-etorrietarako gastuak.

Lanpostuan jarduteko beharrezkoak diren bidaietan eta joan-etorrietan, eta gizarte-arreta eta - ekimenetan, erakunde kontratatzailearen irizpide orokorrekin bat etorriz, justifikazioaren bidez ordaindutako gastuen sistemari helduko zaio, erakunde kontratatzailearen irizpide orokorrekin bat etorriz.

Horretarako, gastu horiek ordaintzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren barruan aplikatzekoak diren irizpide eta balioei helduko zaie.<sup>5</sup>

Hamahirugarrena.– Atxikipenak.

Kontratu honetan hitzartutako ordainsaritik kontura eginiko atxikipenak kenduko dira Pertsona Fiskoan gaineko Zergari buruz indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz eta zuzendaritza-kargudunari egotz dakizkiokeen Gizarte Segurantzako kuotekin bat etorritz, zuzendaritza-kargudun horrek gauzatan jaso ditzakeen ordainsarrietatik eratorritakoak barne.

Hamalauugarrena.– Kontratua azkentzea.

14.1.– Azkentzeko arrazoi orokorrak.

Kontratu hau azkentzeko arrazoiak (zuzenbide komunekoak diren guztiekin batera), edozein kontratatzailearen gaitasunarekin edo edozein negozio juridikoren balioarekin loturikoak, honako hauek izango dira: Langileen Estatutuko 49. artikuluan jasotakoak, horietarako ezartzen den araubide juridikoaren arabera.

– Kontratua azkentzea zuzendaritza-kargudunak eskatuta.

Kontratua azkentzeko arrazoia izango da zuzendaritza-kargudunak hala nahi izatea. Erakunde kontratatzaileari aurretiaz abisatu beharko dio, gutxienez, hiru hilabete lehenago. Aurretiaz ohartarazteko betebeharra hausten bada, zuzendaritza-kargudunak erakunde kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio, zehazki, kontratua azkentzen den unera arte jasotzen zuen zenbatekoa (hamaikagarren klausulan hitzartutako ordainsari finkoa), eta aurrez ohartarazteko bete ez den epeari dagokiona.

Era berean, kontratua azkendu ahal izango da zuzendaritza-kargudunak hala eskatuta. Hitzartutako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren 10.3 artikuluan aurreikusitako egoeren babespean.

– Erakunde kontratatzailearen alde bakarreko atzera egitea.

Erakunde kontratatzaileak, halaber, aldebakarrez azkendu ahal izango du kontratua goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren 11. artikuluan arautzen den atzera egitearen bidez. Zuzendaritza-kargudunari aldebakarreko atzera-egite horren ondorioz eta aurrez ohartarazteko epeari dagokion kalte-ordaina izango da atzera egitea gertatzen denean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzendariei aplikatzekoa zaiena.

Hamabosgarrena.– Kargu publikodun gisa zerbitzua amaitzearen ondoriozko kalte-ordaina.

Bi aldeek adierazten dute ezagutu eta onartzen dutela erakunde kontratatzaileak aldebakarrez atzera egitean legez aplikatu daitezkeen araubidea (kontratu hau sinatzen denean indarrean dagoena), Kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuan ezarritakoa. Horren arabera, gehienez ere hilabeteko kalte-ordaina dagokio, eta aurrez ohartarazteko hamabost egun natural.

Aurreko paragrafoan aurreikusten den kalte-ordaina ez da aplikatzekoa izango kalte-ordaina jasotzeko eskubide hori dakarren kargu bat beste edozein administrazio publikotan betetzeko den kargugabetze edo dimisio kasuetan, betiere kargugabetze- eta izendapen-daten artean hilabete bat baino gutxiago igaro bada.

---

5 Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua, zerbitzuengatik ordainei buruzkoa.



Ez da kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik egongo goi-zuzendaritzako lan-kontratua azkendu bada eta aurretiaz beste edozein administrazio publikotatik edo hari dagozkion sektore publikoetatik goi-zuzendaritzaren lan-kontratua baliogabetu edo azkentzeagatik hilabeteko ordainsariaren kalte-ordaina jaso badu.

Hamaseigarrena.– Ebaluazioa.

Zuzendaritza-karguduna ebaluatu egingo da, eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideen arabera eta kudeaketa eta emaitzen kontrola kontuan izanda, zehaztu zaizkion helburuei dagokienez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 13. artikulua hiru paragrafoan jasotako aurreikuspenarekin bat etorritik.

Hamazazpigarrena.– Kargu publikodun gisa zerbitzua ematen hastearen ondorioz dituen betebeharrak.

Zuzendaritza-kargudunak Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen eta Kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuan definitutako betebeharrak guztiak gauzatu beharko ditu.

Betebeharrak guztiak aipatu xedapenetan adierazitako epeetan eta Eusko Jaurlaritzaren webgune instituzionalean horretarako zehaztu diren formatu elektronikoetan egin beharko dira:

Hamazortzigarrena.– Jarduerak garatzeko bateragarritasunaren baimena.

Era berean, zuzendaritza-kargudunak berriaz eskatu beharko du bateragarritasunerako baimena, Kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuan jasotako prozedurarekin bat etorritik, betiere Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeko 14., 15., 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera kargu publikoa betetzearekin bateragarriak diren jarduerak publikoak edo pribatuak gauzatzen baditu.

Hemeretzigarrena.– Konkurrentzia ezaren konpromisoa.

Ekainaren 26ko 1/2014 Legeko 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Kargu publikodunen eskubide eta betebeharrak buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuaren 35. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako prozedurari jarraituz, zuzendaritza-kargudunak goi-zuzendaritzako lan-kontratua azkendu ondorengo bi urteetan egingo duen edozein jardueraren berri eman beharko du, jarduera hasi baino lehen.

Hogeigarrena.– Konfidentzialtasuna.

20.1.– Helburua.

Klausula honen ondorioetarako, «Informazioa» da, kontratua indarrean dagoen bitartean, informazio ekonomiko, finantzario, tekniko, komertzial, estrategiko eta administratibo oro eta beste mota bateko informazio oro, baldin eta kontratua indarrean den edozein momentutan:

- Zuzendaritza-kargudunak berezkoak dituen eginkizunak eta erakunde kontratatzaileak kontratuaren arabera agindu dizkion eginkizunak gauzatzean jakiten edo sortzen badu,
- edo erakunde kontratatzaileak ahoz, idatziz edo edozein euskarritan jakinarazten badio.
- Mota guztietako analisiak, bilketak, azterketak, laburpenak edo dokumentuak ere «Informazioa» izango dira.

Bestalde, «Informazio konfidentziala» zuzendaritza-kargudunak lan-harremanaren ondorioz (zentzu irekian hartuta lan-harremana) eskuratu edo sortu duen eta jabetza eksklusibotzat edo konfidentzialtzat jotzen den informazio oro izango da, hain zuzen, izaeragatik edo informazio hori emateko nahiz sortzeko moduagatik fede onez halakotzat jo behar dena.

### 20.2.– Erabilera eta xedea.

Zuzendaritza-kargudunak informazioa bakarrik eta berariaz kontratu honetan agindutako egin-kizunak betetzeko erabili behar du. Era berean, zuzendaritza-kargudunak informazio konfidentzial gisa kontserbatu eta tratatuko du nahitaez informazio konfidentzial guztia, eta, bereziki, ez dio hirugarren bati edo erakunde kontratatzailearen langileren bati kontatuko –kontratu honetan agindutakoa edo legez agindutakoa gauzatzeko beharrezkoa den kasuetan izan ezik–, eta, era berean, ez du erreproduzituko, edota, oro har, dagozkion eginkizunetarako ez diren bestelako erabileretarako baliatuko. Zuzendaritza-kargudunak konpromisoa hartzen du erakunde kontratatzaileari berehala itzultzeko –kontratua indarrean dagoen bitartean hala eskatuta, eta eskakizunik egin behar izan gabe betiere kontratua azkentzen denean– berari jakinarazi dioten edo berak sortu duen informazio konfidentziala izan dezaketen edozein motatako euskarriak.

### Hogeita batgarrena.– Erakunde kontratatzailearen jabetza.

#### 21.1.– Zaintzeko betebeharra.

Zuzendaritza-kargudunak ahalik eta kontu handienarekin zaindu beharko ditu erakunde kontratatzailearen eskutik jasotzen dituen dokumentu, objektu eta material guztiak.

#### 21.2.– Itzultzea.

Sortzen den edozein arrazoiengatik kontratua azkentzen bada, zuzendaritza-kargudunak erakunde kontratatzaileari aurkeztuko dizkio egindako operazioekin loturiko edo erakundearen beraren beste bezero batzuekin edo horiekin lotura izan duten konpainiekin loturiko mota guztietako dokumentuak eta erregistroak. Zuzendaritza-kargudunak ez du eskubiderik izango aipatu dokumentazioaren inolako kopiarik gordetzeko.

Era berean, edozein arrazoiengatik kontratu hau azkendu behar bada, zuzendaritza-kargudunak erakunde kontratatzaileari emango dizkio erakundeak eman dizkion objektu guztiak. Baten bat aipatzearren, horien artean sartzen dira, besteak beste, honako hauek: enpresako autoa, telefono mugikorra, hardwarea eta softwarea, kreditu-txartelak, lanlekura sartzeko giltzak, eta zuzendaritza-kargudunak jabetzan edo kontrolpean duen, baina, berez, erakunde kontratatzailearena den edota horrekin loturikoa duen edozein ondasun.

### Hogeita bigarrena.– Datuak aldatzea.

Zuzendaritza-kargudunak erakunde kontratatzaileari jakinaraziko dio norberaren, familiakoen edo langileen datu pertsonaletan edozein aldaketa egon denean, betiere aldaketa horiek nolabaiteko garrantzia badu lan-harremanari edo Gizarte Segurantzza edo Zerga arloarekiko betebeharrei dagokienez. Informazio hori ez bada ematen, erakunde kontratatzailea mota horretako edozein erantzukizunetatik salbuetsita egongo da. Hartara, zuzendaritza-kargudunak derrigor ordaindu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari egoera horren ondorioz izan ditzakeen kalteak eta galerak.

### Hogeita hirugarrena.– Aplikatzekoa den legeria.

Kontratu honetan berariaz hitzartutako guztian, honako hauek aplikatuko dira: goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuan eza-

rritakoa, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren garapena, euskal administrazio publikoen esparruan aplikatzekoa den enplegu publikoari buruzko araudia, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen urriaren ekainaren 26ko 1/2014 Legearen aurreikuspenak, eta, aplikatzekoa bada, horren inguruan legeria zibilak edo merkataritza-arloko legeriak nahiz horien printzipio orokorrek xedatzen dutena.

Hogeita laugarrena.– Kontratuaren klausulak araudira egokitzea.

Kontratu honetan emandako xedapenak zuzenean aldatuko dira legezko xedapenen bidez beharrezkoak diren aldaketak egiten zaizkionean. Hartara, dagozkion klausulak ere aldatuko dira.

Aurretiaz esan den guztiarekin erabat ados dauden froga gisa, bi alderdiek sinatu dute dokumentu hau, lau aletan, idazpuruan zehaztutako egunean eta lekuan.

ERAKUNDE KONTRATATZAILEA

ZUZENDARITZA-KARGUDUNA

Sin.:

..... jauna/andrea

Sin.:

..... jauna/andrea